

Kultura

Elorrion joko du, bihar, Kepa Junkerak. Hitzordu horren aitzakian, 'Tiliño' lagunagaz elkartu du ANBOTOK > 13



AUTOAK



Euskaraz kontsulta hartzeko arazoak izaten dira sarri osasun zentroetan. Pazienteen erosotasunean eragiten duen eskubide urraketa horretarako alternatiba bat aztertu du Bidane Petralanda durangarrak: euskarazko zirkuituena. > 2-3

Euskararen osasuna hobetzeko asmoz

Argazkilaria: Lehior Elorriaga

“Umea hain zoriontsu ikusita, aurrera egin behar duzula konturatzen zara”

Bea Sever • Chrysallis elkarteak > 12



Durangaldean 12.382 lagunek eman zuten botoa galdeketan

Durangaldean herritarren %22,15ek hartu zuen parte Gure Esku Dago dinamikak erabakitzeko eskubidearen inguruan joan zen domekan antolatutako galdeketan. Abadiñoako, Durangoko, Elorrioko, Zaldibarko eta Zornotzako Gure Esku Dago elkarteek diotenez, herri galdeketa “mugarri bat” izan da erabakitzeko eskubidearen bidean. > 4



IURRETA

Lanbide Heziketa

www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ZIKLOAK

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produktzioaren Programazioa
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena

AURREMATRIKULA
Ekainaren 5etik 16ra,
biak barne

MATRIKULA
Uztailaren 13tik 19ra,
biak barne

Euskaraz ikasi eta lan egin!

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta



Durango > 6

Río de Oro elkarteak Sahararen aldeko jaialdia antolatu du

Zornotza > 7

Enpresa hazitegia abian da LH Ikastetxe Integratuan

Elorrio > 5

Herrira bizitzera datozenentzat harrera taldea sortu dute

Abadiño > 9

Gerbasen kalejiragaz San Trokaz jaiak abiatuko dituzte, gaur

Herririk herri

Euskarazko osasun arreta: pazienteen eskubide urraketatik, alternatibaren bila

Euskarazko osasun arloan bizi duen egoera aztertu du Bidane Petralandak

ERREPORTAJEA M. Onaindia
Euskara ofiziala izan arren, euskaldunek osasun zentroetan euren hizkuntzan komunikatzeko arazoak izaten dituzte sarri. Medikuz guztiak euskaraz jakin beharko lukete, baina errealitatea ez da hori, eta Osakidetzak ez du gaia konponbidera eramaten. Egunero sortzen dira trabak han eta hemen, hizkuntza eskubidea urratu egiten da. Adibidez, sare sozialetan zeresana eman du Durangoko larrialdietan asteon gertatutakoak: euskaraz ez zekien medikuak “arazo bat” zutela esan zien

gaztelaniaz ez zekien ume baten senideei. Bada, euskaraz Osakidetzan bizi duen egoera hori aukeratu du Bidane Petralanda medikuntza ikasleak (Durango, 1992) bere gradu amaierako lanerako, Ekaitz Agirregeitia irakasle eta ikerlariaren tutoretzapean garatu duena. Bere azterketa, eskubide urraketari alternatiba bat topatu dion Egoitz Tolosa urologoaren kontsultan kokatu du; arreta euskaraz emateko agenda propioa sortu eta antolatu du Tolosak Gasteizko eta Arrasateko ospitaleetan. Gainera, zerbitzu hori trauma-

tologiakoagaz alderatu du ikasleak, eraginik ote duen ikusteko.

Lanaren ondorioz, pazienteek erakutsi duten harrera “erabat positiboa” izan dela

Euskaraz hiz egingo dutela bermatzen dute euskarazko asistentzia-zirkuituek

Bidane Petralandak. Osakidetzak 2013an onartutako Euskara

Planean, arreta euskaraz emateko zirkuituak sortzea proposatu zuen; hau da, paziente euskaldunari bere arreta osoa euskaraz bermatu ahal izateko antolatzea. Baina oraindik ez da martxan jarri, eta ikaslearen ondorioen arabera, ez medikuek, ez pazienteek ez dute zirkuituen aukeraren berri. Tolosa medikuarena salbuespena da, ospitaleko zuzendariaren proposamena jaso eta bere borondatez dabilena. Hala ere, Osakidetzak ez du bere lanaren jarraipenik egiten.

Petralandaren ikerketaren arabera, mediku euskaldunek euskaraz artatuak izan nahi duten pazienteekin euskaraz hitz egingo dutela bermatzen dute euskarazko asistentzia-zirkuituek.

Dublinen azaltzen

Gradu amaierako lana asteon Dublinen (Irlanda) egin den osasun arreta integratuaren



Zaldibarko anbulatorioan beharginek ipini duten ka...

“Euskarazko tratua zenbatek gura duten jakiteko modu efizientea da zirkuituena”

Osakidetzak borondatea balu, euskarazko arreta eman ahalko litzatekeela dio Petralandak



Medikuntzako karrera amaitu eta gradu amaierako lana osatu du Bidane Petralandak.

Idealena mediku denek euskaraz jakitea izango litzateke. Ebakuntza egingo dizun mediku horri euskarazko profila eskatu beharko zaio, eta, ez badauka, ikasi egin beharko luke. Baina hori eduki ezik, zerbait erraza da zirkuituena. Eta hala ere, ez da egiten. Osakidetzak dirua inbertitu beharko luke horretan, baina uste dut inbertitu barik ere antolatu daitekeen gauza bat dela. Gogo pixka bat ipintzea da kontua.

Zer ondorio atera duzu zure lanetik?

Zirkuituek funtzionatzen dutela, adibidez. Hasteko, euskarazko tratua zenbat jende gura duen neurtzeko modu efizientea da. Behin neurtuta, baliabideak horren arabera antolatuko dituzu. Durangon %80ko euskara eskaera bada, hamarretik zortzi mediku euskaldunak izan beharko dira gutxienez.

Zergatik aukeratu zenuen gai hau zure lanerako?

Ospitaleko praktikan ikusten dudana arazo bat da, eta paziente lez ere bai. Nire familia-medikuak ez daki euskaraz, eta ni gaztelaniaz ez naiz euskaraz bezain ondo esplikatzeko; oraindik gutxiago lasai ez bago. Beragaz urteetako komunikazioa landu dut, eta gustura nago, baina bera jubilatzean mediku euskalduna hartuko dut, dudarik barik. Bestalde, zerbait desberdina egin gura nuen, medikuntzako lan oso zientifikoak izan ohi dira eta.

Euskarazko zirkuitu bat aztertu duzu, Tolosa medikuarena.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko maiatzaren 12a
14. urtea - 676. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



fot. Lehiur Elorriaga

inguruko konferentzia batean aurkezteko aukera eduki du Petralandak. Osasun arloko euskararen normalizazioaz lehen aldiz berba egin da horrelako topaketa batean. Beragaz batera Aitor Montes Aramaioko medikua ere joan da, osasun arloan

Osasun arloko euskararen egoeraz lehen aldiz berba egin da horrelako topaketa batean

normalizazioaren alde lanean dabilena. Bestalde, ekainean hemengo udako ikastaro batean ere emango dute Petralandaren ikerketaren berri.

Nazioartean hizkuntza minorizatuek osasun sailean bizi duten egoera ere jorratu du bere lanean Durangoko medikuntza ikasleak. Orain, Dublineko aurkezpenari esker, euskararen osasuna ere munduko medikuntzako argitalpen zientifikoetan jasoko da, lehenengoz.

“Paziente euskaldunak erosoago sentitzen dira mediku euskaldunagaz”

Egoitz Tolosak euskarazko arreta eskatzeko aukera badagoela dio, eskaintzen ez bada ere



Eskubideaz aparte, hizkuntzak tratua hobetzen ere eragingo luke?

Dударик барик. Askotan nabitu izan dut. Paziente euskaldunak askoz erosoago sentitzen dira mediku euskalduna badute; adinekoek, adibidez, gertatzen zaiena errazago adierazten dute ama hizkuntzan. Konfiantza gehiago dutela uste dut. Jendeak zorionak eta eskerrak ematen dizkigu.

Zure kontsultak erakusten du badagoela beharizan bat.

Bai. Batez ere zonalde jakin batzuetan. Gasteizen gero eta eskari handiagoa dago, baina Gipuzkoa edo Bizkaiko zonalde batzuetan eskaria oso handia da, eta arreta hori ez da ematen. Askotan, pazienteari ez zaiolako eskaintzen. Aukera egon badago, baina pazienteak ez badaki arreta euskaraz jaso dezakeela, ez du eskatzen. Nire agenda propioa sortu aurretik, Arrasaten hamarretik zazpi euskaraz egiten zuten, eta horiek guztiek eskatu zuten euskarazko kontsulta aukera eman zitzaieanean. Horrela joan nintzen pazienteak biltzen. Lanik garrantzitsuena lehen arretako

zentroetan dago; pazienteari jakinarazi behar zaio euskaraz jaso dezakeela arreta, maila guztietan, eta ez duela horregatik berandu edo oker jasoko.

Beraz, pazienteak anbulatorioan eskatu behar du euskarazko arreta.

Anbulatorioaz aparte, internetez ere egin daitezke. Gero, pazientearen historial kliniko zabaltzean, E handi bat agertzen zaigu medikuoi. Zenbateko eskaera dagoen zenbatzeko balioko luke, eta zer beharizan dagoen jakingo genuke. Modu horretan, eskaera handia baldin bada, Osakidetza ere serioago hasi beharko luke lanean. Bestalde, plazak zabaltzerakoan, euskarari lehenetasuna eman beharko liokete, baina hori beste kontu bat da.

Euskarazko tratua emateko ez dago antolaketarik.

Azken batean, nire kontsulta ez da ofiziala; geu antolatu gara kontsulta euskaraz izan dadin. Geure borondateagatik izan da; Arrasatera kontsulta pasatzera txandaka joaten gara, eta euskaldunok gehiagotan joan behar izaten dugu.

Zerbitzua arautzea nahikoa litzateke?

Nire laneko beste ondorioetako bat da, mediku euskaldunak egoteak ez duela bermatzen tratua euskaraz izatea. Lehenengo muga medikuek hautsi behar dute; askok ez dute euskara erabiltzen, jakin arren.

Batzuek diote mediku ona edukitzea dela garrantzitsua, ez hizkuntza.

“Zer gurago duzu, mediku ona ala euskalduna?”, esaten dute honen alde egin gura ez dutenek. Nire ustez, ingurune euskaldunean lanean dabilen mediku bat ez da inoiz ona izango euskaraduna ez bada. Hizkuntza garrantzitsua ez bada, zergatik ez ekarri mediku ingelesak Durangoko anbulatoriora? Medikuen eta pazientearen arteko komunikazioa oso garrantzitsua da.

“**Medikuen eta pazientearen arteko komunikazioa oso garrantzitsua da**”

“**Espezialistengana joaterakoan, errazagoa egingo zaizu tratua zure hizkuntzan bada**”

“**Lehen muga medikuek hautsi behar dute; askok ez dute euskara erabiltzen**”

Familia-medikuen kasuan aurretik ibilbide bat izaten du pazienteak, baina espezialistekin ez ordea.

Hori da. Espezialistengana joaterakoan, errazagoa egingo zaizu tratua zure hizkuntzan bada, lehenengo aldia izango denez ez duzulako aurretiazko erlaziorik edukiko.

Mediku euskaldunen maila ez da besteena baino txikiagoa, ezta?

Iaz, MIR azterketako lehen hamarren artean geratu ziren EHUko ikasle bakarrak euskarazko lerrokoak izan ziren. Ez dut uste MIREko notak mugatzen duenik zein den mediku ona eta zein ez, baina datua esanguratsua da. Hala ere, gaztelaniaz ere moldatuko ginatke; zoritxarrez, karrera osoa ez dago euskaraz. Adibidez, azken ikasturteko ikasgai batzuk gaztelaniaz jaso behar izan ditut.

“**LUXUA**
ZURE POLTSIKOAREN
NEURRIRA”

6.400 €

-tik aurrera
Etxetresna elektrikoak barne

**MAIATZAREN
27ra arte**



SCHMIDT ABADIÑO

Murueta auzoa, z/g - 17B lokala

Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO

Tel.: 946 526 195

info@schmidt-abadiano.com

www.schmidt-cocinas.es

SCHMIDT
Cocinas y Muebles de Hogar





Abadiñon, Txanporta eta Traña plazetan ipini zituzten hautetsontziak.

12.382 lagunen botoa, “mugarri bat” sortzeko

Herritarren %22,25ek parte hartu dute bozketan

DURANGALDEA J.G./M.O.

Gure Esku Dagok antolatutako herri galdeketa Durangaldeko 12.382 lagunek eman zuten botoa joan zen domekan, parte hartzera deitutako %22,25ek, hain zuzen. Dinamikako kideen ustez, eguna “mugarri bat izan” zen. Bozketaz aparte, jai-giroan bizi izan zuten eguna.

Durangoko parte-hartzea %20ko langara heldu ez izanak sentazio gazi-goza utzi dio Andoni Urzelai antolatzaileari. Hala ere, lanagaz eta emaitzagaz “pozik eta harro” daudela dio. “Egun zoragarria izan da. Parte-hartzera etorri direnek ilusioz eman dute botoa”.

Abadiñon balorazio positiboa egin dute. Joseba Der-

teanok dioenez, “herritarrek elkarlanean antolatutako galdeketa izan da, eta gaur abadiñarrek erabakitze eskubidea gauzatzeko aukera izan dute”.

Elorrioren ere “pozik” daude; Durangaldeko parte-hartzerik altuena izan dute. “Ea indar hori zelan erabiltzen dugun aurrerantz”, gaineratu du Inma Eguenek.

Maite Ingunza Zornotzako Gure Esku Dago elkarteak kideak aitortu duenez, “jendea kalera irten da, espero ez genuen jendea ere bai”.

Zaldibarren “sentsazio oso onagaz” gelditu direla esan du Ibaia Maortuak, bai bozketagatik, bai azken egunetako giroagatik.

EMAITZAK

DURANGO

- **Partaidetza:** %18,80
- **Botoak:** 4.657
- **Bai:** 4.543
- **Ez:** 76
- **Zuriak:** 31
- **Balio barik:** 7

ZORNOTZA

- **Partaidetza:** %22,77
- **Botoak:** 3.637
- **Bai:** 3.541
- **Ez:** 68
- **Zuri:** 16
- **Balio barik:** 12

ELORRIO

- **Partaidetza:** %34,02
- **Botoak:** 2.104
- **Bai:** 1.982
- **Ez:** 98
- **Zuri:** 11
- **Balio barik:** 13

ABADIÑO

- **Partaidetza:** %22,41
- **Guztira:** 1.376 boto
- 1. galdera:
 - **Bai:** 1.328
 - **Ez:** 28
 - **Zuri:** 8
- 2. galdera:
 - **Bai:** 1.229
 - **Ez:** 64
 - **Zuri:** 35
- **Balio barik:** 0

ZALDIBAR

- **Partaidetza:** %23,5
- **Botoak:** 608
- **Bai:** 545
- **Ez:** 42
- **Zuri:** 15
- **Balio barik:** 6



Elorrioren, azken emaitza aurkezteko unean.



Zaldibarren Mendilibarrek eman zuten botoa. Bovedak ere bai, Durangon.



Joseba Sarrionandiaren ama, Natali Uribelarrea, Durangon.



Gure Esku Dagoko kideek Durangon egin zuten ekitaldi nagusia.



Zornotzako boluntario batzuk, atsedenaldian.

Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Baserritarren eta Euskal Herriko
basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 IURRETA
Tel.: 946 205 187 - Faxa: 946 205 194

Frantziako kartzeletara martxak egingo dituzte

Fleury eta Saint Maur espetxeetara joango dira

DURANGALDEA M. Onaindia
Euskal presoan aldeko *Kalera Kalera* dinamikak kartzeletara martxak antolatu ditu maiatzaren 20rako, eta Durangaldetik Frantziako Fleury eta Saint Maur espetxeetara joango dira. Parte hartzera deitu dute, euren

ustez “herritarren esku” baita-go presoan arazoa konpontzea. Oharrean diotenez, ETaren armagabetzea “funtsezko mugarrira” izan da, eta bakerako eta justiziarako, “iheslari eta preso politiko denen kaleratzea ezinbestekoa” dela uste dute.



Martxak babestu dituzten zenbait herritar, deialdia egiten.

Josep Pamiesek hitzaldia emango du, martitzenean

ELORRIO A.B.

Elorrixa talde ekologistak gonbidatuta, Josep Pamies nekazari ekologikoak hitzaldia emango du, martitzenean, Arriolan, 19:00etan. Sendatze naturalaren eta “gaixotasunak ekiditeko ezinbestekoa” den elikadura osasuntsuaren defendatzaile sutsua da, eta “gaitzaren kontura negoziatzea” leporatzen dio “mafia farmazeutikoari”. Dulce Revolución elkartearen sortzaileak botika larregi erabiltzen dela dio: “Ezinbestekoak dira batzuetan, baina ez beti”. Naturagaz berriz konektatu behar dela dio, eta ezin dela landaririk debekatu: “Zertarako diren eta nola erabili azaldu behar da”. Elorrixakoak astelehenero batzen dira, Iturrin, 20:00etan.

Artisau eta sortzaileen bigarren azoka, zapatuan

ELORRIO M.Z.

Elorrioko Eixu Artisau Elkartek azoka antolatu du zapatu honetarako. Inguruko artisau eta sortzaileei lekua eman gura dien azoka da, eta 10:00etan hasiko da. Elorrioko Eixu sortzaileen elkarteak antolatutako azoka Urarka kalean jarriko dute, Portaleku tabernaren ondoan. Bertan, askotariko produktuak egongo dira salgai.

Elorrioko Eixu elkarteak 2016ko azaroan eratu zen, sorkuntzan dabiltzanei lekua emateko asmoz. Abenduan lehen azoka antolatu zuten, hamar postu jarritz. Zapatu honetarako, berriz, bigarrena antolatu dute.



Astelehenean egin zuten prentsurrekoa, udaletxean.

Herrira bizitzera datozenentzat harrera taldea sortuko dute

Herrian erroldatzen diren pertsonen erraztasunak emateko protokolo bat jarri du martxan Elorrioko Udalak hainbat elkarteren laguntzagaz

ELORRIO M.Z.

Elorriora bizitzera datozen atzerriarrentzat aniztasun programa jarri du martxan Elorrioko Udalak. Egun, Elorrioren 371 atzerriar daude, eta merezi duten arreta bermatzeko sortutako programa dela adierazi du Idoia Buruaga Elorrioko alkateak.

Boliviatik, Senegaletik, Indiatik, Sahararik, Aljeriatik... datozen pertsonen herriko hizkuntzaren, ohituren eta kulturaren berri emateko, *Ongi etorri Elorriora* liburua aurkeztu dute aste honetan. “Aspalditik egosten egon den proiektua da hau. Programa honi esker, Elorriora datozen pertsonen harreman estuagoa izango dute administrazioagaz eta udalagaz”, adierazi du Txus Arrieta zinegotziak.

Bestalde, Elorriora etorri berri diren eta prentsurrekoan batu diren pertsonen adierazi dute orain erreminta on bat daukatela herrian zer gauza dauden jakiteko. Orain arte, gauzak bilatzea oso zaila egiten zitzaizkien arren, hemendik aurrera herrian askoz errazago

mugituko direla adierazi zuten prentsurrekoan batutako atzerriarrek.

Ongi Etorri Elorriora liburua gain, Elorriko Udala harrera protokolo bat martxan jartzen hasi dela jakitera eman dute prentsurrekoan. Arrietak

‘Ongi Etorri Elorriora’
baliabide gida kaleratu
du udalak herrira datozen
atzerriarrentzat

Elorrioren aniztasuna
nola bizi den jakiteko,
diagnostiko bat egiten
dabilta herrian

jakitera eman duenez, hemendik aurrera udalak ondorengo bide hau jarraituko du: “Lehenik eta behin, erroldatzen datozen herritarrei baliabide gida emango zaie herritarren arre-

tarako zerbitzuan. Bestetik, azken bi hilabeteetan Elorriora etorritako pertsonak batu, haiei harrera egin eta zalantzak argituko dizkiegu, bai udal zinegotzietatik, bai teknikariek”.

Bestalde, Elorrioren aniztasuna nola bizi den jakiteko, diagnostiko bat egiten ari direla eman du jakitera zinegotziak, eta hori burututakoan harrera taldea osatuko dutela. Harrera taldearen helburua Elorriora bizitzera datozen pertsonen bidelagun izatea izango dela esan du Txus Arrietak. “Taldea herritik sortutakoa izango da, eta etorri berriei nolabaiteko informazioa eta laguntza ematea izango du helburu”, gaineratu du Arrietak.

Horrez gain, proiektu honek egin dute elkarte eta eragileei eskerrak eman zizkien prentsurrekoan Idoia Buruaga alkateak. “Hau ez da udalaren proiektua bakarrik. Lajwad, Caritas, AEK, La Caixa eta abarren laguntzarik barik proiektu hau ez litzateke egingo”, bukatu zuten Idoia Buruagak.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

hitz #gomendioak

artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

J.M. COETZEE
JESUSEN
ESKOLA-EGUNAK
J.M. Coetzee (2017)

ESPAZIOAREN
ESPLORAZIOAREN
HISTORIA
Ledu, Prattini & Pauwels (2017)

MUSIKA
PADDY REKALDE
& ITSUA
Paddy Rekalde
& Itsua (2017)

Rio de Oro elkarteak sahararren aldeko jaialdia antolatu du

DRTren errugbi topaketan emakume sahararrei laguntzeko dirua batu dute



Errugbi topaketa antolatu eta babestu dutenek aurkezpena egin zuten martitzenean.

DURANGO M.O. / J.D.

Rio de Oro elkarteak sahararren aldeko jaialdia antolatu du maiatzaren 20rako, Durangoko Tabirako parkean. 11:00etan ha-

sita, umeen jolasak, paella lehiaketa, dantzak eta kontzertuak iragarri dituzte. Kontzertuak Sorginola gaztetxean izango dira Nevadah, King Kong Blues,

Sangre de Mono eta EK Ramirez taldeekin.

Jaialdi hori albiste on bat ospatzeko aprobetxatuko dute, gainera. Izan ere, udan ume

sahararrak hartzeko 5 familia gehiagok eman dute izena aurtengo Oporrak Bakean programan, eta, horregatik, pozik daude Rio de Orokoak. “Egitasmo honek zeraman joera ikusita, arrakasta bat da 5 familia gehiagok izena eman izana”, azaldu dute prentsa oharrean. “Familia batzuegan txispa piztu dugula uste dugu”, adierazi dute arduradunek. Herriaren lekukoa hartuta, aurten lehenengoz eraman dute proiektuaren arduraduraren, eta, beraz, estreinaldi ona izan dute.

Horrez gainera, hilaren 15era arte udako kanpalekuan izena emateko aukera eskaini dute, aniztasun funtzionala duten ume sahararren begirale izateko. riodeorodurango.com webean dute informazioa.

Emakumeei laguntzeko

Bestalde, asteon DRTren eskutik egindako errugbi topaketan ateratako diruagaz emakume sahararrei lagunduko diete. Hain zuzen ere, menstruazio kopak erosi eta Rio de Orokoek bidaliko dituzte. Eskoletan itsulapikoak ipiniko dituzte, eta Sarasketa farmaziak zein Nissan Gaursak babestuko dute ekimena.

Etxauzia proiektua aurkeztuko dute Plateruenean

DURANGO M.O.

Baigorriko Etxauzia gaztelua erosi eta bizia emateko proiektua sustatzen dabilta herri-gintzako hainbat pertsona eta elkarte, inguru hartakoak zein Euskal Herri osokoak. Ekonomia, ondarea eta kultura landuko dituen zentro bat izango da, “Baigorri bizi eta zabal bat” lortzeko asmoz.

Baigorriko Etxauzia gaztelua erosi eta bizia emateko proiektua sustatzen dabilta

Horretarako, *Euskaldun bat, euro bat* izeneko diru-bilketa kanpainan murgilduta daude. Bada, durangar batzuk ere batu dira ekimenera, eta datorren eguaztenean, hilaren 17an, aurkezpena egingo dute Plateruena kafe antzokian, 19:00etan.

Maristak ikastetxeko talde batek Euroscola lehiaketa irabazi du

Europar Batasuna gazteengana hurreratzea da ekimenaren helburua



Lehiaketako irabazleak sariagaz, ikastetxeko patioan.

DURANGO Markel Onaindia Europako Legebiltzarrak antolatzen duen Euroscola lehiaketako sarietako bat lortu dute Maristak ikastetxeko Batxilergoko 1. mailako ikasle batzuek.

Europar Batasuna gazteengana hurreratzea eta teknologia berrietan trebatzea dira ekimenaren helburuak, ikastetxeko arduradunek prentsa ohar bidez azaldu dutenez.

Besteak beste, Europar Batasuneko Giza Eskubideen Kartaren azterketa bat landu dute ikasleek, eta eskubide batean oinarritutako bideo bat sortu ere bai.

Ekintzaile izateko

Bestalde, Ekintzailetza Astean murgilduta egon dira, asteon, ikastetxean. Orain arte, egun bakarreko jardunaldia egin dute, baina aurten aste osora pasatzea erabaki dute, lehenengoz. Janire Arriola arduradunaren esanetan, aurreko edizioetan berbaldiak eduki izan dituzte batez ere, baina praktikaren beharrez ere ikusten zuten, eta, horregatik, tailerrak ere egin dituzte. Martitzenean, adibidez, taldeka banatu eta salgaien makina bat zelan sortu ikasi zuten, Innobide erakundearen laguntzagaz.

Gaur burututako jardunaldian, osterar, Rio de Oro elkartearen eta Gernikako nesken saskibaloi taldeko kapitainaren esperientziak ezagutu dituzte, besteak beste.

Paseoen bidez osasuna eta laguntasuna indartzen

DURANGO M.O.

Herriko nagusiekin paseoak egiten hasi dira Durangon, udaleko adinekoen sailak antolatuta. Astelehenean izan da lehena, eta datozen lau asteetan jarraituko dute, momentuz.

Dozena bat nagusik parte hartu zuten estreinaldian. Kurutzian dagoen Adineko Egoitzatik irten, San Faustorantz jo, Landakotik pasatu eta handik egoitzara buelta hartu zuten. Guztira, 3,5 kilometroko ibilaldia osatu dute, eta gehienek 80 urtetik gora dituzten arren, gustura amaitu zuten. Euregaz batera, Didaka Vila eta Gorka Estevez begiraleak joan ziren, Siel Bleu fundazioko begiraleak.

“Osasun onari eustea eta autonomia handiagoa lortzea” dira helburuak, Pilar Rios alkateordearen esanetan. Gainera, euren artean hartu-eman sortuta, laguntasuna ere lantzen dute. Nagusiei hurrengo paseoetan izena emateko deia egin die, 94 465 74 51 telefonora deituta.

2015ean baino 9 sexu eraso gehiago aztertu zituzten iaz

DURANGO M.O.

Durangoko Ertzain-etxean 2015ean baino 9 sexu eraso gehiago aztertu zituzten iaz, Durangaldea eta Arratia kontutuan hartuta. Hain zuzen ere, 10etik 19ra pasatu zen sexu erasoaren kopurua. Bestalde, familia giroko erasoek ere gora egin zuten, 69tik 84ra –emakumeenganako erasoak barne–.

Datuak eman zituzten astelehenean, eskualdeko udaletako kideen eta udaltzainen aurrean

Ertzainek delitu guztien inguruko datuak eman zituzten astelehenean, eskualdeko udaletako kideen eta udaltzainen aurrean, besteak beste. Delituen batez bestekoak tasa berean jarraitzen du: %24,7 delitu 1.000 biztanleko. Indarkeria erabilitako lapurretak 64tik 41era bajatu dira, eta enpresetako lapurretak 230etik 199ra.

Ekintzaileek doako lokal batean eman ditzakete lehen urratsak

Lanbide Heziketa zentroak ikastetxe kanpokoei ireki die enpresa hazitegia



Zornotzako Lanbide Heziketa Ikastetxe Integratuko lokal bi ekintzaileei bideratuta daude.

ZORNOTZA Joseba Derteano Zornotzako Udalak eta Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuko akordio bat sinatu dute enplegua sustatzeko. Akordio horren barruan, ikastetxeak enpresa hazitegi moduan dituen gela biak herriko ekintzaile guztientzat eskuragarri egongo dira, eta ez euren ikasleentzat bakarrik.

Horrela, enpresa bat sortu gura duten ekintzaileek ikastetxera bertara jo dezakete eskara egitera. Lokaletan martxotik irailera dago tokia. Ondoren,

matrikulazioa hasten denean, eskariaren arabera egoera kudeatzen saiatuko lirateke udalagaz batera.

Hazitegiak hainbat arrazoi-rengatik dira interesgarriak ekintzaileentzat, Jose Manuel Gonzalez zentroko zuzendariaren esanetan. Alde batetik, lokala eta hango azpiegiturak (argia, Internet, telefonoa...) dohainik erabili ditzakete. "Euren ideiak garatzeko babes eta bultzada bat eskaintzen die, sarritan ez baita lokal bat erosteko dirurik izaten edota dudak

izaten baitira enpresak funtzionatuko duen ala ez". Horrez gainera, "sinergiak" elikatzeko gune ere bihurtu daiteke hazitegia. "Batzuek eta besteek elkar ezagutzeko aukera dute, ondoan daudelako. Horrek ideiak edo baliabideak partekatzea ekarri dezake".

Ikastetxeak aholkularitza ere eskainiko die ekintzaileei: euren ideiak etorkizunik izan dezakeen aztertuz, alternatibarik badagoen zehaztuz, diru-laguntzak lortzeko dauden aukerak azalduz eta abar.

Orientazio topaketak mila ikasle inguru batuko ditu

Aurtengoan hamargarren aldia beteko dute

OTXANDIO J.Derteano Otxandioko eskolak orientazio topaketen 10. aldia antolatuko du maiatzaren 22tik 28ra. Aurtengoan hamargarren aldia da, eta inoizko umerik gehien batuko du. Guztira, bosgarren eta seigarren mailetan ikasten duten mila gazte inguru igaroko dira Otxandiotik sei egunetan. Hogeitabi ikastetxetako ikasleak etorriko dira, eta horietako hainbat eskualdekoak dira: Otxandio, Abadiño, Zaldibar eta Durangoko Landako eskoletako ikasleak parte hartuko dute topaketetan.

Urtero legez, hainbat proba prestatu dituzte egun osoan

zehar. Goizetan, mapa bat hartu eta eskola atzeko basoan orientatu beharko dute ikasleek, lau ibilbidetan. Bikoteka ibiliko dira. Bazkalostean, aldiriz, herrigunean zehar ibiliko

Otxandio, Abadiño, Zaldibar, eta Durangoko Landako eskolek parte hartuko dute

dira, balizen bila. Aniztasun funtzionala duten ikasleentzat proba bereziak antolatuko dituzte.



Orientazio probetan hainbat baliza aurkitu behar izaten dituzte ikasleek.

Txori kantarien lehiaketa Berrizen, domekan

Txapelketa 9:30ean hasiko da udaletxeko lorategian

BERRIZ M. Zuazubiskar Berrizko Udalaren laguntzagaz, Barakaldoko Txinbo Elkarte Ornitologikoak txori kantarien lehiaketa antolatu du, maiatzaren 14rako.

Berrizen egingo den txapelketa honetan, txoka eta kardantxilo arrazako txoriek parte hartuko dutela jakitera eman dute antolatzaileek. Horrez gain, bertara biltzen den zale orori beren txo-

riagaz parte hartzeko aukera emango dietela adierazi dute.

Maiatzaren 14an egingo den lehiaketa 9:30ean hasiko da, Berrizko udaletxeko lorategian. Antolatzaileek adierazi duteenez, euria eginez gero eskolako aterpe berrian egingo litzateke lehiaketa, udaletxeko lorategian egin beharrean.

Bestalde, epaimahaiko ki-deak Berangotik eta Lemoatik etorriko direla jakitera eman dute antolatzaileek.

Toti Martinez de Lezeak hitzaldia eskainiko du

MAÑARIA J.D. Zapatu honetan garagardo artisauen azokagaz hasiko dute Aste Kulturala, eta datorren aste osoan ere hainbat hitzordu daude. Martitzenean Toti Martinez de Lezea idazleak eta eguaztenean Alberto Iñurra-

tegi alpinistak hitzaldi bana eskainiko dute. Berbaldi biak 19:00etan hasiko dira, liburutegi zaharrear.

Bestalde, maiatzaren 18a Museoen Nazioarteko Eguna da, eta egun horretan doakoa izango da Hontza museorako sarrera: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Astelehenean plan orokorren egoeraren gaineko azalpenak emango dituzte 19:00etan, liburutegi zaharrear.

Markina-Xemein 94 616 90 02

Lanbide heziketa

Ersti maila

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgingintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantenimendu elektromekanikoa

Goi maila

- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Mekatronika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Ekoi-zen prozesuak eta kalitatea Elikagaien Industrian
- Effizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Web Aplikazioen Garapena (2. maila)

Eskaintza Partziala

Ote irekiak:
Maiatzak 11
15.00etatik 19.00etara

lea artibai
Ikastetxea
Etorriaren erakiz

Markina-Xemein

94 616 90 02

info@leartik.com

www.leartik.com

Askondoko aterpea lurretako kultura anitzen topagune bihurtuko dute

Zapaturako antolatu duten jaialdiak askotariko identitateen artean zubiak eraikitzea du helburu

IURRETA Joseba Derteano
 “Pertsona batek beste bat eza gutzen duenean, apurte egiten dira topikoak”. Kultur-aniztasunaren Astearren barruan zapatu honetan antolatuko duten jaialdiak baldintza horiek errazteko “zubi lana” egitea du helburu, Zorione Fundazuri zinegotziak aurkezpean azaldu zuenez.

Turretako Udalak hainbat elkarteren laguntzagaz antolatu du. La Otra Mirada da horietako bat eta Marisa Parejo hango ordezkaria. “Turretan kultura asko bizi dira, baina ez dugu elkar ezagutzen. Jaialdia horretarako baliagarria izango dela espero dugu”, adierazi zuen. Turretan 3.640 pertsona daude erroldatuta, eta %7,37 kanpokoak direla eman dute jakitera.

Hiru ekintza prestatu dituzte, eta zapatu honetakoa da nagusia. Askondoko aterpe berriak egun osoko jaialdi bat hartzen duen lehenengo aldia izango da.

Tailerrak eta bazkaria

Goizean tea eskainiko dute Marokoko Axura eta sahararren aldeko Rio de Oro elkarteek; elkarlan horren fruitu dira osteko tailerrak ere.

Eguerdian, bazkaltzeko batuko dira. Nork bere errezetaz, arroza prestatuko du elkarte bakoitzak, eta bazkalostean dantza saioa izango dute. Besteak beste, Afrikako Mali herrialdeko dantza bi eskainiko ditu hemen bizi diren maliarrak batzen dituen Fasoden elkarteak. “Bi etniak egingo dute dantza. Maliko ipa-



Astelehenean aurkeztu zuten Kultur-aniztasunaren Astea, Ibarretxe kultur etxean egindako agerraldian.

rraldekoa da bat, eta hegoaldekoa bestea. 70 bat lagun etorriko

lurretako 3.640 pertsona daude erroldatuta, eta %7,37 kanpokoak dira, jakitera eman dutenez

dira”, Souleymane Konate elkarteko kideak azaldu zuenez. Gura dutenek Afrikako dantzak praktikatzeko aukera ere izango dute.

Kale antzerkia

Maiatzaren 18an, 18:00etan, *Io sto con la sposa* izeneko dokumentala eskainiko dute Ibarretxen. Ostean, Ongi Etorri

errefuxiatuak elkarteko kideek dinamizatuta, gai horren gaineko iritziak ematera gonbidatuko dituzte bertaratuko direnak.

Maiatzaren 19an, *Tras la frontera* kale antzerkia egongo da Askondon. Bere herrialdea utzi beharrean dauden pertsonen buruz hausnartzea proposatuko du Plataforma Tirante taldeak, 19:30ean.

Jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa, abian

ZALDIBAR I.E.

Maiatzaren 26ra arte (15:00ak arte) egongo da aukera Zaldibarko jaietako XXVI. kartel lehiaketara lanak aurkezteko. Udaletxeko bulegoetan aurkeztu ahalko dituzte parte-hartzaileek beraien kartelak, eta hiru sari banatuko ditu epaimahaiak; 250 eurokoa izango da lehenengo saria, 150 eurokoa bigarrena, eta 100 euroko balioa duen saria emango diote 14 urtez azpiko irabazleari. Epaimahaiak maiatzaren 30ean emango du bere erabakia ezagutzera.

Herri bideen inbentarioa onartu dute Atxondon

EH Bilduk alde bozkatu zuen, eta EAJk kontra

ATXONDO M. Zuazubiskar

Asteon egindako udalbatzarrean, EH Bilduk orain hiru urte hasitako herri bideen inbentarioa onartu dute gobernu taldearen aldeko botoagaz. Atxondoko herri bideak zeintzuk diren zehazten dituen inbentarioa amaitu eta herritarren alegazioak jaso ostean, orain herri bideen ordenantza egiten hasiko dira. “Legez behartuta geunden herri bideen inbentario bat egitera. Gainera, egunerokoan herriko

bideekin arazoak zeudela ikusita, azterketa hau egitea beharrezkoa zen”, adierazi du David Cobos Atxondoko alkateak.

Herritar talde batek inbentarioarekiko desadostasuna erakutsi zuen asteleheneko udalbatzarrean, eta EAJk herritarrei entzun egin behar zaiela adierazi zuen. Cobos alkateak, berriz, urtebetean “isilik” egon direla eta inbentarioan ekarpenak egiteko aukera izan dutenean “ezer ez” dutela egin erantzun zion oposizioari.

Sagardo Eguna ospatuko dute, Dj Bullegaz

GARAI M.O.

Trumoitte kultur elkarteak prestatuta, II. Sagardo Eguna ospatuko dute, hilaren 20an. Herritarrek egindako sagardoa dastatzeko aukera egongo da, 18:00etan hasita, pilotalekuan. 5 euro ordainduta, gura beste edan eta jan ahalko da, eta Dj Bullek ipiniko du giroa.

Garaiko zenbait herritar Oiartzungo Okiltxiki base-rrian egon ziren sagardoa egiten, eta hurrengo zapatuan probatu ahalko da. Gainera, herritarrek egindako Zezpala sagardoa ere ez da faltako.

Udalekuetarako begiraleak behar ditu Satxibuk

MALLABIA J.D.

Mallabiko Satxibu aisialdi taldea udalekuetarako begirale bila dabil. Interesatuak satxibu@hotmail.com helbide elektronikora bidali dezakete curriculumak. Ekainaren 10era artekoa da izena emateko epea. Euskara maila ona izatea, herria ezagutzea eta 18 urte beteta izatea dira baldintza nagusiak. Kontuan hartuko dituzte, besteak beste, begirale titulua izatea, aisialdian esperientzia izatea edo hezkuntzagaz lotutako ikasketak izatea.

UXARTE
 SAGARDA OGINTZA
 Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
 OSTIRALETAN ETA
 ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR
 ENKARGUZ
 Gutxienez 15
 laguneko taldeentzako

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

Murueta, 6
 Tel.: 94 681 87 92
 48200 ABADIÑO BIZKAIA

Gaur hasita, San Trokaz jaiak gozatzeko zazpi egun, Zelaietan

Auzoko jaiak ospatuko dituzte Zelaietan, gaurtik maiatzaren 20ra arte



Gerbasen kalejiragaz hasiko dituzte jaiak, gaur iluntzean.

ABADIÑO Itsaso Esteban Txistularien eta dantzarien ekitaldiagaz eta Gerbasen kalejiragaz hasiko dituzte, gaur, 20:00etan, Zelaietako San Trokaz jaiak. Asteburu honetarako eta hurrengorako, zein aste bitarterako ere gustu guztietarako ekintzak antolatu ditu Jai Batzordeak. Haur eta gazte-oxoendako hainbat ekintza antolatu dituzte, esaterako; bihar, 11:00etan, ume eta gazteen bizikleta martxa abiatuko dute, Txa-

porta plazatik; 8 eta 14 urte artekoentzat disko festa egingo dute, etzi, 18:00etan; astelehenean, *Walkman* antzezlan izango dute ikusgai, 17:00etan; eta Markeliñeren *Crusoe*, maiatzaren 19an, 17:00etan. Egun horretan, publiko helduari zuzenduriko antzezlan bat ere izango da ikusgai; *Jainko Basatia* eskainiko du Txalo Produktzioak taldeak, barikuan, 19:00etan.

Musikazale eta dantzazaleentzat ere aukera zabala izango da datozen egunetan, Zelaietako jaietan. Maiatzaren 20an, Bultz eta Tooth taldeek kontzertua eskainiko dute Txanporta plazan; astelehenean, San Trokaz egunetan, Oxabi taldeagaz erromeria izango da; eta Laket taldea arituko da 20an.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU PEREZ

EH Bildu



Gure esku dago

Ez nengoen ni, ez, oso motibatuta. Azken boladan zalantzan jartzen hasi nintzen benetan gure esku dagoen ala ez. Egia da, Durangon lanean ibilitako lantaldeak sekulako giroa eta ilusioa sortzea lortu duela, baina uste nuen ez genbiltzala asmatzen erabakitze esku-bidearen bezalako aldarrikapenak behar duen zeharkakotasunarekin. Era berean, ikusten nuen hemendik oso urrun, Madrilen konkretuki, bulego itxietan erabakiak hartzen dutenen jarrera zurrizten ari ginela.

Tira, zalantza horiek guztiak alde batera uztea lortu nuen, eta berriro ere bihotzak burua gainditu zuen. Dena den, sorpresa heldiegi zegoen... Igande goizean amaren deia jaso nuen: "Aizu Dani, non bozkatzen da Durangon?". Harrituta nengoen, gure amak "politikaz" beti paso egin duela. Baina ilusioz bozkatu zuen erabakitze esku-bidearen alde. Nire amak uste zuen igandean bozkatea sinbolikotik harago zihoala: botoa ematera doan beste aldi batzuetan baino garrantzi gehiago zuela igandekoak, alegia. Berarentzat, "herriari" parte-hartzeko emandako konfiantza dago guztiaren oinarrian, herriarrek zuzenean erabakietan parte hartzeko urratsa da. Berriro ere, ustekabea, amak beste lezio bat eman zidan.

Gobernuaren politika energetikoagaz kritiko

"Iberdrolaren oligopolioaren alde egitea" egotzi die EH Bilduk Independenteei eta jeltzaleei

ABADIÑO I.E.

"Abadiñoko udalbatzak energia berriztagarrien eta aukera berdintasunaren aurka eta Iberdrolaren oligopolioaren alde" egin duela kritikatu du EH Bilduk, asteon komunikabideetara bidali duen ohar batean. Gai horren inguruan koalizioak apirilko plenoan aurkeztu zuen mozioaren aurrean

Abadiñoko Independenteei eta EAJ alderdiek izan zuten jarrera gaitzesi du EH Bilduk. "Apirileko plenoan, Iberdrolak energia elektrikoaren merkatuan duen oligopolioa salatze, udalaren hornidura elektrikoaren energia berriztagarrien bidez hornitzeko eta etikoagoak diren beste enpresa batzuei aukera berdintasunean hornidura hori

eskaintzeko" proposatu zuela azaldu du EH Bilduk, eta kontra bozkatu zutela Aik eta EAJk.

"Urtean ia 300.000 euro ordaintzen dizkio Abadiñoko Udalak Iberdrola enpresari", dio EH Bilduk komunikabideetara bidali duen oharra. "Legez diru kantitate horretako kontratu batek esleipen prozesu bat eskatu arren, Iberdrolari ematen zaio zuzenean kontratu hori, lege hauste bat eginez".

EH Bilduren ustez, "energia berriztagarrien aldeko apustua egin eta herritarrei kontsumo elektrikoaren gastua jaisteko hainbat aholku ematen dituzten enpresa etikoagoak hobetsi" behar litzuke udalak.

Jaietako kartel lehiaketa martxan ekainera arte

IZURTZA J.D.

Udalak irailko jaiak iragaritzeko kartel lehiaketa abiatu du. Proposamenak udaletxean aurkezteko epea ekainaren 5era artekoa da, eta kartel irabazlearen egileak 250 euroko saria jasoko du. Kartelek 'Izurtzako jaiak 2017' testua jaso behar dute. Irudiari dagokionez, jaietako ezaugarriren bat jaso eta adierazi beharko du. Baldintza guztiak www.izurtza.net webgunean irakurri daitezke.

DURANGALDEA ASTEON

250 dantzari Umeen Euskal Jaietan

ELORRIO > Betsaide dantza taldeak antolatu duen Umeen Euskal Jaiak 250 dantzari batuko ditu, domekan. 12:30ean aterako den kalejiragaz eta herriko dantzarien saioagaz hasiko dira domekako ekitaldiak. 13:30erako trikipoteoa antolatu dute, eta 17:00etan dantzariak alardea egingo dute herriko plazan.

Bosgarren urteurrena ospatuko du Bizidunek

DURANGALDEA > Hainbat ekintza prestatu ditu Bizidunek. Martitzenean, 17:00etan, Bizidunen sorrerari buruzko berbaldea eskainiko dute elkarteko sortzaileek Traña-Matienako Errota kultur etxean. Elkartearen ibilbidea islatzen duten argazkien erakusketa bat ere ikusgai egongo da kultur etxean.

Bertoko produktuekin dastaketa antolatu dute

ATXONDO > Bertan bertokoa dinamikak hemengo produktuen dastaketa antolatu du eguneko, 18:00etan, eskolan. Idiazabal gazta, ogiak eta sagar dultzeak... egongo dira. Izen-ematea euro bi da (685 772 468). Aurretik, 17:00etan, EAEko eskola publikoetako jangelen ikerketaren emaitzak azalduko ditu aditu batek.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

Neureak zirelako hil nituen

Sasikoa kalean zeuden zuhaitz eder eta sendo batzuk moztu dituzte. "Sauce llorón" edo sahats negartiak ziren. Kaleari bizitasuna ematen zioten, espazio basatia porlanaren erdian. Norbaitek azalduko dit Eusko Treneko edo ETSko jabetza pribatuan zeudela. Baina oker daude. Zuhaitz horiek geureak ziren: nireak, zureak, zuenak... Herritar guztionak ziren. Norena zen egun eguzkitsuetan sortzen zuten gerizpe goxoa? Eta norena, handik pasatzean, etxerako bidean, urrunetik ikusten zenuen irudi eta giro atsegina? Norenak txorien sinfoniak? Norenak bertan bizi

ziren inurriak, armiarmak, katuak, txoriak eta ezkutaturik bizi omen zen katamotza?

Di-da batean moztu dituzte, erraz. Ezer azaldu barik. Hau zoramena! Bitartean, ondoko lorategi urbanoan, lorezainek orduak sartzen dituzte: lore hauek kenduz, beste horiek ipiniz... oso polit eta txukun.

Erantzuleari hauxe esan nahi diot: jar itzazu lehenbailehen berriro zuhaitzak, inurriak, armiarmak, katuak, txoriak eta enparau guztik. Katamotzaz ni neu arduratuko naiz.

Bego Elejabarrieta (Durango)

Gero eta lagun gehiago gara ANBOTOrri babesaren ematen

Anboto txartelagaz 21 establezimendutan jaso ditzakezu abantailak

DURANGALDEA

Anbotoren lagunen kanpaina berria martxan dago. Euskarazko komunikazio proiektua babesteaz gainera, Anbotoren lagun eginda hainbat abantaila jasotzeko aukera dago Durangaldeko 21 establezimendutan. Proiektuagaz bat egiten duten pertsonen eskerrak emateko asmoagaz, eta herritar gehiagori egitasmoan beraien aletxoak jartzeko gonbidapena eginez, hobari erakargarrietan dator Anbotoren lagunen kanpaina. Dentistak, optikak, liburu-den-

dak, gimnasioak, arropa-dendak, bitxi-dendak, jatetxeak, dekorazio-dendak... zerbitzu ugari eskaintzen dituzten establezimenduetan Anboto lagun txartela erabili daiteke.

Urtean 30 euroko babesaren truke, ANBOTOk abantailaz beteriko txartela banatuko die laguntza hori ematen dioten herritarrei. Txartel honeguz, Durangaldeko zein eskualdeko kanpoko hainbat saltoki eta zerbitzutan deskontu bereziak jasotzen dira. Txartelaz gain, hilero, Anbotoren lagunentzat

oparien zozketa bereziak egiten dira. ANBOTOn argitaratzen diren iragarki laburretan eta eskeletan ere deskontuak jasoko dituzte proiektuari urteko kuota horreguz babesaren ematen diotenak.

Astekariaren proiektua babestuta, abantailak lortu gura dituzten lagunek modu erraz batean eman dezakete izena. Harpidedunek hurrengo asteetan ANBOToren telefono deia jasotzen dutenean, aukera izango dute kanpainagaz bat egiteko.



21 establezimendutan jaso ditzake hobiai.



Lourdes Arrizabalaga eta Mainer Llanos
LANDAKO OPTIKA

Landako Optikan urtebete daramate Anboto Lagunen kanpainaguz Lourdes Arrizabalagak eta Mainer Llanosek. Ekimenaren inguruan, balorazio positiboa egiten dute.

Anboto lagunen kanpainaguz bezero asko etorri zaizkizue optikara?

Mainer Llanos: Hainbat bezero etorri zaizkigu Anboto lagunen txartelaguz. Gainera, azpimarratuko nuke bezero hauetako asko ez zirela aurretik sekula etorri. Beraz, gure negozioa ezagutzera emateko beste modu bat izan da.

Lourdes Arrizabalaga: Gaur egun, bezeroak erakartzeko modu asko daude. Esate baterako, lehengo egun batean, betaurreko marka baten hornitzaileak garelako ikusi zuen batek interneten. Markinatik Durangora espreski marka horretako betaurrekoen bila etorri zen.

Zein deskontu eskaintzen duzue?

M.A.: %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta arma-zoi eta lenteetan.

Jendeak eskertzen du deskontu hori?

L.A.: Jakina. Beharpenetatik kanpoko deskontuak ondo etorriak izaten dira.

Zein balorazio egiten duzue?

M.A.: Balorazio oso positiboa da. Badaude pertsona batzuk agian ez dutenak erreferentziako optikarik, eta Anboto Lagunen txartelaren bidez guregana jo dezakete, deskontua aplikatzea amu legez jarrita. Geure burua ezagutzera emateko modu bat dela ikusi dugu.



Maite Mancisidor
MANCISIDOR BITXI-DENDA

Durangoko Mancisidor 1866 bitxi-dendak 150 urte egin zituen iaz. Bost belaunaldian Mancisidor familiak kudeatutako komertzioak Anboto lagunen kanpainan parte hartzen du. %5eko deskontua eskaintzen du 100 euro arteko erosketetan, eta %10ekoa 100 eurotik gorakoetan Anbotoren lagunen txartela erakutsita.

Zein harrera izan du Anbotoren lagunen kanpainak zuen dendan?

Ondo joan da. Astiro-astiro jendea kanpaina eza gutzen joan da. Horrelako proiektuetan parte hartzen dugu, gu ere herriko komertzioa garelako eta ANBOToren proiektuaguz elkarlanean aritu gura dugulako.

Jendeak eskertzen ditu hobiai hauek?

Bai, jakina. Denok eskertzen dugu hobiai aplikatzea. Gainera, hau ez da mundu guztiari aplikatzen zaion deskontu bat. Txartela izan behar duzu hobiai jasotzeko. Beraz, horrek bezeroa "berezi" sentiarazten du.

Komertzio moduan, ekimen hau zelan baloratzen duzue?

Komertzio moduan, oso ondo baloratzen dugu. Gure bezeroak herrikoak dira, eta gu ere tokiko denda bat gara. ANBOTO ere bertako hedabide bat izanda, elkarren artean eragiteko egitasmoaren aldekoak gara.

Herrian ekimenak martxan ipintzen dituzten elkarte zein eragileekin elkarlanean aritzea oso positiboa da denontzat. Herrian presente egoteari beti eman diogu garrantzia, eta bide horretan jarraituko dugu aurrerantz ere.



Bego García
IURRETA KOPISTEGIA

Iurreta Kopistegiak abantaila eta deskontuak eskaintzen dizkie Anboto lagunen txartela duten bezeroei. Bego García kopistegiko arduradunak azaldu duenez, bezeroak batez ere eskola materiala erostera doazenean erakusten dute txartela. "Fotokopia bi aterata ez da igartzen aldea, baina eskolara bueltan bai".

Jende askok erabiltzen du Anboto Lagunen txartela?

Bai, geroago eta gehiago dira. Anboto Iurretan egonda, inguruko batzuei nik neuk azaldu diet zer den eta zein hobiai eskuratu dezaketen, bai gurean eta baita beste hainbat komertziotan ere. Erraza da Iurretan ANBOToren bulegotik pasatzea eta Anbotoren lagun egitea.

Jendeak pozik hartzen ditu deskontuak?

Bai. Guk batez ere %10eko deskontua egiten dugu eskola eta bulego materialean, eta %5ekoa musika, opari eta liburuetan. Beraz, batez ere eskolara bueltan etortzen da jenderik gehien. Sasoi horretan liburu asko erosi behar duenak bolumen handiagoa erosten du, eta deskontuak merezi du. Fotokopia bi egiterakoan agian ez, baina erosketa handi batean bai.

Bolumen handiko erosketetan igarriko da aldea.

Hori da. Ikasturtea hasterakoan liburu eta material asko erosi behar duenari %10eko deskontua eginez gero, aldea nabaria da. Bolumen handiko erosketetan erabili dute gehienek Anbotoren txartela. Bestalde, ikusi duguna da jende askok ez duela txartelaren eta hobiai berri, eta pena da, merezi du eta.

Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

%



A-METZ DEKORAZIOA

- > -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
- > -%20 ideien proiektuan.



BETIXU JATETXEA

- > - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



COLOR PLUS

- > -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
- > -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



EPOCA SUKALDEAK

- > -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- > -%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



GIMNASIO ZIRKIN

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- > Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



HITZ LIBURU-DENDA

- > -%10 euskarazko liburuetan.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- > -%15 sarreran.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- > -%5 lehenengo erosketan.
- > -%10 erosten den bigarren arropan.



IURRETA KOPISTEGIA

- > -% 10 eskola eta bulego materialean.
- > -%5 musika, opari eta liburuetan.



KATXARRO JATETXEA

- > - %10 asteburueta menuetan.



KIROL ERROTA GIMNASIOA

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.



LANDAKO OPTIKA

- > -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- > -% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
- > -%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.



NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- > -%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
- > -%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.




OPEN KLUB

- > -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- > Bosgarren gosaria doan.
- > Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

- > Azterketa eta bi erradiografiak doan.



UNDARRI BIKE

- > -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
- > -%10 bizikletako osagarrietan.



URRIKE LIBURU-DENDA

- > -%5 liburuetan.
- > -% 10 papergintzan.



UR URDAIBAI

- > -%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



Anbotoren Lagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak



Bea Sever Egaña | Chrysallis elkarteko kidea | Getxo, 1973

“Diren modukoak izanda bizi ahal diren pertsona transexualen lehen belaunaldiaren aurrean gaude”

Bea Severrek bere familiaren esperientzia azalduko du, maiatzaren 17an, 18:00etan, Elorrioko Arriolan, eta 25ean Abadiñon

> **BERBAZ** Jone Guenetxea

Hazte Oir elkarteko autobusaren kontrako erantzun zabalak indarra eman die ume transexualen familiek osatutako Chrysallis elkarteko kideei. Hala ere, aurrerapausoak eman diren arren, oraindik ere bide luzea dagoela egiteko azpimarratu du Bea Sever elkarteko kideak. Elorrion eta Abadiñon joango da bere biziaren azaltzera.

Berbaldia ematera etorriko zara Elorrion eta Abadiñonko Zelaitara. Zelan planteatu dituzu solasaldi horiek?

Gure errealitatea azaltzea da helburua. Hasieran transexualitatearen oinarri sexologikoa azalduko dut, eta ondoren nire esperientzia pertsonala kontatuko dut, nire semearen kasua. Normalean jendeari errazago heltzen zaio mezua empatia baldin badago, kasu erreala bat ikusten baduzu eta aurpegia eta izena jartzen badizkiozu horri.

Zuek zelan bizi izan duzue prozesu hau 7 urteko semeagaz?

Hau ez da batere erraza. Jenderik gehienari gertatzen zaion moduan, transexualitate hitza ez genuen haurrekin lotzen. Eta, gainera, nahiko etiketa itsusiekin lotzen genuen. Benetan kosta egiten zaizu ulertzea zer den gertatzen ari dena. Gure semeak 5 urteagaz egin zuen transitoa. Beraz, bi edo hiru urte behar izan genituen. Izan ere, ulertzen ez duzuna izan duzu identifikatu. “Marimutila izango da”, eta horrelako gauzak pentsatzen dituzu. Gizartean nesken gauzat hartzen diren gauzak mutiko batek gustuko baditu, dena nahastu egiten duzu eta pentsatzen duzu hori baino ez dela. Baina, familia askotan ikusten dugu zer edo zer gehiago dagoela. Eta, bat-batean, umeak eztanda egiten du, eta bota egiten du. Momentu horretan mundua gainera erortzen zaizu. Negar asko egin genuen, eta hilabete gorrorak izan ziren. Baina, aldi berean, umea hain zoriontsu



Argazkia: Hiruka

“**Umea hain zoriontsu ikusten duzunean, aurrera egin behar duzula konturatzen zara**”

ikusten duzunean, eta horrelako aldaketa ikusten duzunean, aurrera egin behar duzula konturatzen zara.

Transito prozesu hori nola eramaten da?

Transitoa egiten duenean, umeak ahaztu egiten du gaia, baina orduan hasten da zailena familiarentzat. Onartzea eta beldurrak alde batera uztea da hurrengo pausoa. Nire kasuan, hau guztia zabaltzen aurkitu dut bidea. Beste batzuek ez dute hain ondo eramaten.

Zuen kasuan, transitoa egitea liberazio bat izan zen?

Umearentzat, bai. Pentsa bihar beste izen batez eta beste sexu-identitate batez esnatzen zarela. Eta zuk ez duzu ulertzen. Bat-batean zu zeu izateko aukera ematen dizutenean, aldea ika-

ragarria da. 9 urteko neskato baten kasua daukagu. Iaz anti-depresiboekin, ansiolitikoekin ohean zegoen, oso gaizki. Handik hamabost egunetara beste pertsona bat zirudien. Zoriontsu zegoen. Badaude horrelako kasuak, eta izugarria da.

OMSek patologien zerrendatik kenduko du transexualitatea. Pauso esanguratsua da?

Patologietatik kenduko du, baina desoreka gisa utziko du. Beraz, aurrerapauso txiki bat da. Gure haurrek ez dituzte beste haurrek dituzten eskubide berberak, eta beraz, lan handia dugu aurretik egiteko. Bestalde, ez dakit konturatzen ari garen zelako aldaketa gertatzen ari den. Diren modukoak izanda bizi ahal diren pertsona transexualen lehen belaunaldiaren aurrean gaude. Aurreko belaunaldietako transexualek bizi behar izan dituzte gizarteko gauzarik txarrenak: marginazioa, langabezia, heriotza, tratu txarrek... Oso fenomeno indartsua da.

Hazte Oir elkartearen autobusak kontrako erreakzio hain indartsua izango zuela espero zenuten?

Gizartearen eta erakundearen erantzunagaz oso eskertuta gaude. Bide gogor honetan jendearen babesa oso garrantzitsua da. Aurrera egiteko bultzada handia izan da. Gure karpaina atera genuenean, hiru egunean 60 hedabidetatik deitu ziguten. Hazte Oirrena gertatu zenean, 100dik gora izan ziren.

Instituzioek zein erantzukizun dute transexualen eskubideen inguruan?

Nafarroako gobernua aitzindaria izaten ari da. Eusko Jaurlaritzagaz, aldiz, gauzak ez dira hain errazak izaten ari. Hiru aldarrikapen nagusi ditugu. Arreta zerbitzua, hezkuntza eta osasuna. Nafarroan lehenengo biak lortu ditugu, eta osasun arlokoa bidean dago. Alde batetik, familientzako arreta guene bat aldarrikatzen dugu. EAEn orain ama bat dago telefono partikular batez familiari erantzuten. Hala ere, arreta zerbitzu hori laster martxan jarzea lortu dugu. Izan ere, gai horretan aditua den sexologo bat behar da lan hori egiteko. Bigarren puntua hezkuntzagaz lotuta dago. Ume transexual bat dagoen zentroetan, bertako lan-

gileei prestakuntza edo formakuntza bat ematea beharrezkoa da. Hau EAEn ez dago protokolo batez araututa, eta ikastetxearen arabera egiten da. Batzuetan eragozpenak ere jartzen dituzte, beldurra dutelako. Nafarroan iaztik jarri da martxan protokolo hori, eta gaia sexologo batez lantzen da zentroan.

Osasunean zein da zuen aldarrikapena?

Gure haurrek nerabezaroan blokeatzaileak gura izaten dituzte. Hori bi urteko prozesua da, psikiatrekin. Lortu dugu arintzea, baina kasu batzuetan sei hilabete ere ezin dira itxaron. Pentsa, kasu batzuetan, mutiko bati bularrak hazten ari zaizkiola, edo hilerokoa jaisteko duela. Prozesu horiek ez dute atzera bueltarik. Baditugu kasu oso larriak, eta psikiatrian bueltak ematen ari dira, endokrinoarengandik pasatu barik. Burua ondo ederto daukate, eta behar dutena endokrinologia da. Kasu dramatikoak ditugu. Gainera, sasoi horretan suizidio saiakera tasa igo egiten da eta garai oso zaila da. Zentzu honetan, Nafarroan legea aldatzen ari dira. www.chrysaliseh.eus

AUTOEN GEHIGARRIA



ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 **DURANGO**/Bizkaia

Tel.: 946 202 004 Faxa: 946 200 998

alluitz@otola.org · www.alluitzmotor.com

DISFRUTATZEKO TEKNOLOGIA



Mas Curvas eta Durangalde Racing elkarteek 10. urtemuga, eskualdean afizioa dagoen erakusle

Mas Curvasek Elorrion ospatuko du urtemuga jaia, lehenengoz; Durangalde Racingekoek Rallya aprobetxatuko dute elkartzeko

> ELKARTEAK Markel Onaindia Afizio guztietan bezala, motoak edo autoak gidatzeko zaletasuna politagoa da konpartitua izaten bada. Horixe pentsatu zuten Durangaldeko hainbat zalek duela hamar urte, Mas Curvas eta Durangalde Racing elkarteak sortu zituztenean. Ekainean ospatuko du talde bakoitzak bere urteurrena, eta euren ibilbidea eskualdean afizio handia dagoen erakusle edo seinale da.

Mas Curvas elkarteko motozaleek Elorrion ospatuko dute lehenengoz urtemuga jaia, aurreko urteetan euren egoitzan eta Durangon egin eta gero. Martxa, gaztandegi batera bisita, 300 lagunentzako bazkaria, moto akrobazien ikuskizunak, kamioi amerikarren erakusketa, kontzertuak... Deneriko egitaraua prestatu dute ekainaren 10 eta 11ko astebururako, eta motozale guztiak gonbidatu dituzte.



Mas Curvaseko hainbat lagun, Durangon egindako topaketa batean.

Kanpoan ezagututa

“Astiro-astiro joan ginen elkar ezagutzen, kanpoan egindako kontzentrazioetan. Hartu-eman estutzen joan eta elkarte sortzea erabaki genuen”, azaldu du Juan Cruz Elvira Txapuk. Hasieran tabernetan batzen ziren, baina egokiena lokal bat hartzea izango zela konturatu,

eta Aliendaldeko industrialdean zabaldu zuten egoitza. Gaur egun 21 bazkide dira.

Urtean zehar zaletasunaz gozatzeko ekintzak egiten dituzte, beti zerbait ludikoa gehituta: Txitxiburduntzia, *moto-hamarretakoak*, jostailu bilketa Gabo-

“Gure borroka beti da bide bazterretako babesen inguruan”

netan... Horrez gainera, bariku guztietan egoitzan batzen dira, iluntzean.

Segurtasuna aldarrikatzen Afizioa errepide batean gartzen denean, bizia jokoan izaten da sarri. Horregatik, moto gi-

dariantzat segurtasuna aldarrikatzen dute Mas Curvasekoek. “Gure borroka beti da bide bazterretako babesen inguruan. Salduta segitzen dugu arlo horretan. Bestalde, zebra-bideetako margoa oso labainkorra izaten da”, nabarmendu du



Zaletasuna partekatzea da Mas Curvasekoen asmo nagusia.



Durangalde Racing elkarteko kideak, sorreran ateratako argazkian.

MOTOS TABIRA
KONTZESIONARIO OFIZIALA
Salmenta · Konponketa · Boutiquea

DOAKO ASEGURUA ITZULI DA
KEEWAY 125CC GUZTIETARAKO

Arzuria ind., 10B pab. 22 znb. · MATIENA-ABADIÑO
Tel./Faxa: 946 814 068 · motostabira@outlook.es
www.motostabira.es

Talleres
Serafín
S.Coop

Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 814 807

Garage SAN MIGUEL

TallerXXI

ESPEZIALISTAK DIESEL
ETA GASOLINA MOTOREAK
KONPONTZEN

Dantzari auzunea, 8
IURRETA
Te./Fax: 946 811 479
garagesanmiguel@gmail.com
www.garajesanmiguel.es

“Leku batera heldu eta trago bat hartu ahal duzu lagunagaz”


Ekainaren 17an antolatuko dute euren ekimen nagusia den Rallya

Txapuk. Bestalde, seguruago ibiltzea da taldean irtetearen abantaila bat. “Segurtasunagatik hobe da, eta, gainera, leku batera heldu eta trago bat hartu ahal duzu lagunagaz”, esan du motozaleen elkarteko kideak.

Rallya aprobetxatuta

Durangalde Racingekoek ez dute Mas Curvasekoek lako jai handirik egingo, baina euren erara ospatuko dute 10. urtemuga. Ekainaren 17an antolatuko dute euren ekimen nagusia izaten den Bizkaiko Balkoia Rallya, eta hori aprobetxatuko dute ospakizunerako.

Aketza Santacolomak adierazi du aurtengo edizioan 80 bat gidari batzea espero dutela, eta



Durangalde Racingen rallyan parte hartuko duten autoak Landako Gunean egongo dira.

tartean egongo dira eskualdeko onenak zein Euskal Herriko txapeldun izandakoak. Barikuan egiaztapenak egingo dituzte Durangoko Landako Gunean, eta

Santacoloma: “Durangaldera bueltan ekarri genuen kirol hau”

zapatuan goizean eta arratsaldean jokatu da rallya.

Lasterketa egunean 30 bat lagun elkartuko dira antolaketarako, eta guztira 200 laguntzaile edukiko dituzte. Beraz, elkarrekin duen mobilizazio gaitasuna itzela da. Horrez aparte, bidaiak ere egiten dituzte kanpoko lasterketak ikusteko.

Lehenengo rallya oso gazte zirela antolatu zuten. “Nik 18 urte

egin berri nituen, eta, egia esan, haizeak nondik jotzen zigun ere ez genekien. Baina inoren menpe ez egotea gura genuen, eta arin lortu genuen. Durangaldera bueltan ekarri genuen kirol hau”, gogoratu du Santacolomak.

Elkartea sendotzen joan eta hamar urtera heldu da, afizioa lagunartean partekatzeko helburuz.

Auto klasikoan lehen Rallya egingo dute Bernagoitian

> PROBA M.O.

Zornotzako Lanzero Clasic klub jaio berriak auto klasikoan Rallya antolatu du lehenengoz Bernagoitian, auzoko jaien barruan. Bihar izango da igoera, eta 30 bat auto gidarik parte hartzea espero dute, Ricardo Perez klubeko presi-

Bihar izango da igoera, eta 30 bat auto gidarik parte hartzea espero dute

denteak esan duenez. Gidari gehienak zornotzarrak dira.

12:00etatik 16:00etara bitartean autoen egiaztapenak egingo dituzte. 17:00etan izango da lehen txanda, eta 18:00etan bigarrena. Abiadura barik, erregulartasuna neurtuko dute. Gutxienez 25 urteko autoak izango dira partaideak.



Batez besteko kontsumoa 4,3-4,7(l/km) eta CO₂-a isurtzea 109-124(g/km)

Clase C Berlina. Auto bat, hamaika aukera.

Clase C Berlina une bakoitzerako auto aproposa bilakatzen da. Kirol-akabera paregabea, SPORTIVE AVANTGARDE pakete daukana eta gidatzeko asistentzia-sistemak dauzkana (SPEEDTRONIC duen TEMPOMAT abiadura-kontrola) bai barrutik bai kanpotik liluratzeko diseinatuta daude. Honelako berlina batean pasioa eta teknologia elkartzen direnean, eustea ezinezkoa da.

Mercedes Benz

The best or nothing.



AGUINAGA

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es · www.aguinaga.es

Borua Industrialdea, 2. Nabea 3
48340 ZORNOTZA
Tel.: 94 630 17 47

“Sistema berriekin gero eta ezagutza zehatzagoa behar da hainbat konponketa egin ahal izateko”

Autoa egoera onean mantentzeko, hainbat aholku eman ditu Beñat Abasolo mekanikari iurretarrak

> MEKANIKA Itsaso Esteban Mekanika ikasi eta arlo horretan lan egin zuen, hainbat urtez, Beñat Abasolo iurretarrak. Gaur egun Iurretako Renault Gaurisa kontzesionarioko harreragile beharrezan dihardu; autoa tailerrera daramaten bezeroei harrera egiteaz arduratzen da. Edozein gidarientzat baliagarri izan daitezkeen gomendioak eman ditu.

Abasolok dioenez, krisi ekonomikoaren eraginez ibilgailuen bizitza erabilgarria gero eta gehiago luzatu gura dugu gidariok, eta gero eta baldintza eskasagoko autoak dabilta errepideetan. “Konponketa txikiak eginda autoen bizitza erabilgarria luzatu gura dugu, baina oso inportantea da beharrezko konponketa guztiak egitea autoa behar den bezala matentzeko”. Oinarrizkoena gurpilak ondo edukitzea da, Abasoloren berbetan, “eta gehiegi iraurarazi gura izaten dituzten jendeak”.

Gurpilen higatzeaz

Erosten dugun autoa egoera onean mantendu ahalko dugun ala ez kontuan hartzea ezinbestekoa da, Beñat Abasoloren berbetan. “Egundoko autoa erosi eta gurpilak aldatu behar direnean merkeak gura izatea ez da bateragarria”, azpimarratu du, “mantenua garestia da”.

Izan ere, segurtasunari loturiko aurrerakuntzek ekarri dituzten sistema berriek gurpilak azkarrago higatzea dakarte. “Sistema horiek itsasgarritasun handia ematen dute, eta horrek gurpilak asko higatzea dakar”, dio Abasolok. “Eta beraz, kilo-

metro gutxiagoro aldatu behar dira: lehen 30.000-40.000 kilometrogaz aldatzen bagenituen ere, orain 20.000 kilometrogaz aldatu beharra dago, gutxienez gurpiletako bi”.

Gurpilak ez ezik, airbagak, eta frenoetako ESP eta ABS sistemak ere autoaren segurtasuneko oinarrizko elementuak direla azpimarratu du Abasolok. “Bizia salba diezazukete”, nabarmendu du. “Edozelan ere, segurtasunari eta erosotasunari dagokienez, asko hobetu dira autoak: ibilgailu merkeenek ere segurtasuneko hainbat berme eskaintzen dituzte”.

Urtero, tailerrera

Autoari urtero berrikuspen orokor bat egitea gomendatzen du Beñat Abasolok. Dioenez, gero eta jende gehiagok eraman du autoa tailer ofizialetara, erosi eta lehenengo 4-5 urteetan, behintzat. Bestelako tailerren kompetenziari erantzunez, azaldu du, bestalde, markak eskaintza alternatiboak, merkeagoak, egiten hasi direla bezeroak zerbitzu ofizialera etortzeari utzi ez diezaioeten.

Oinarrizko ezagutza

Iurretarrak nabarmendu duenez, asko aldatu da azken urteotan mekanikaren mundua, eta “gero eta ezagutza berezituagoa behar da hainbat konponketa egin ahal izateko, eta gauza asko ezin dira ordenagailurik barik egin”. Hala ere, badaude Abasolok azpimarratu dituen gutxieneko batzuk, gidari guztien kultura orokorreko ezagutzaren parte izan beharko lira-



“Oinarrizkoena autoaren gurpilak egoera onean edukitzea da”

“Orain, hainbat konponketa ezin dira ordenagailu barik egin”

tekeenak. “Adibidez, olio eta ur nibelak begiraten edo gurpilen higadura konprobatzen jakitea. Izotzaren kontrako likidoa non botatzen den edo tenperaturaren orratza zein den argi edukitzea ere inportantea da autoa egoera onean mantentzeko”. Bestalde, Abasoloren ustez, edozein gidarientzat onuragarria litzateke, “gurpilak zelán aldatzen diren eta katua non jarri behar den jakitea”.

Ohikoa baino bidaia luzeago bati begira, abiatu orduko

gurpilen presioa, eta uraren eta olioaren nibelak konprobatzea gomendatzen du Beñat Abasolok, eta “bidean edozein matxurra gerta daitekeenez, garabiarren telefonoa eskura izatea ere garrantzitsua izaten da”.

“Bidaiei begira, gurpilen presioa begiratzeko da nire gomendioa”

DESGUACES MALLABIA

- Metalen erosketa: kobrea, brontzea, letoia, beruna, aluminioa, bateriak eta abar.
- Autoen birziklatzea balio-bizitza bukatzen zaienean.
- Ibilgailuen berreskuratzea.
- Ordezko piezen salmenta.

Mallabarrena Ind., 7 - 48269 MALLABIA
Tel./Faxa: 943 175490 - Mug.: 616 552 158

ARRIBIDE
.. GASOLINDEGIA ..

Arriaundi Industrialdea P1
48215 IURRETA Bizkaia
Tel. 946 818 381
estacionservicio@arribide.com

www.arribide.com

> AUTOBUS GIDARIA M.Z.

Jon Elorriaga Duñabeitia iurretarrak bizitza osoa darma errepidean lanean. Hasieran, autoeskolako irakasle aritu zen, eta egun autobus gidari lez dabil.

“Gidari, txirrindulari zein oinezkoek errepidean elkarrekin bizi behar dugu”

25 urtetik gora autoeskolako irakasle izan ostean, egun autobus gidaria da iurretarra

Noiztik zabilta autobusa gidatzen?

Errepidean bizitza osoa darma, baina 2001etik nabil autobusa gidatzen. Hasieran, autobus berezi batez hasi nintzen; ikasgela bihurtzen zen autobus bat gidatzen nuen, eta Euskal Herri guztian aritu ginen.

Ostean, berriz, autobus publikoa gidatzen hasi zinen.

Bai, hala da. Orain bospasei urtetik hona autobus publikoa gidatzen nabil, Lurraldebusagaz.

Nolako da zuen lana?

Gurea erantzukizun handiko lana da, gauza askorengatik, gainera. Lehenik eta behin, pertsonak eramaten ditugulako. Bestalde, guk ordutegi batzuei jarraitu behar izaten diegu, eta, errepidean lan eginda, askotan zaila izaten da ordutegi horietara heltzea, eta askok ez dute hori ulertzen. Autobusek ordutegi bat izaten dute, baina, errepidean edozer gertatuz gero, atzerapena izan dezakegu eta jendeak ez du hori ulertzen.

Kasu horietan aurpegi txarrak ikusi behar izaten dituzue?

Autobus gidari batek denetarik ikusten du, baita aurpegi txarrak ere. Askotan badirudi jendeak ez dakiela bestearen lekuan jartzea zer den. Ordurako heltzen ez garenean, autobus gidaria izaten da gehien sufritzen duena, eta geltokira iritsi eta itxaroten dagoenak eskua nahita altxatu eta erlojuari begiratzeari ez da gustagarria izaten gidariarentzat. Keinu horiek ez dira politak izaten, egia esan. Azken batean, guk eskaintzen dugun zerbitzuagaz jendea pozik egotea da gure helburua, eta horrelako gauzak ikusterakoan ez gara oso ondo sentitzen. Errepidean lan egitea ez da erraza izaten, eta edozer gauzak eragiten digu atzerapena.



Jon Elorriaga Duñabeitia autobus gidaria.

“Errepideko lana ez da erraza, edozerk eragin dezake atzerapena”

Autobus gidarien lana lan arriskutsua dela esan daiteke, errepidean ordu asko egiten dituzue eta.

Errepidean jende asko gabiltza, eta arreta handiagaz ibili behar izaten dugu. Zentzumen guztiak erabili behar ditugu, erne ibili behar dugu, eta esperientziak asko egiten du gidatzerako orduan. Bestalde, denok kontzientzia izan behar dugu errepide guztiona dela, eta gidari, txirrindulari

zein oinezkoek errepidean elkarrekin bizi behar dugula. Ezinbestekoa da denok elkar errespetatzea. Horrez gain, jendeak errepidean arduratsuago jokatu beharko lukeela uste dut. Esaterako, jende asko mugikorraren menpe bizi da. Mugikorrak joz gero, askotan hartu egiten dute, gidatzen edo zebra-bide bat zeharkatzen ari badira ere.

Zerk gogaitarazten du gehien autobus gidari bat?

Lehen esan bezala, bidaiariak egiten dituzten keinu txarrek zein autobusera sartzen direnean ez agurtzeak asko gogaitarazten nau. Egia esan, euskaldunok badugu nolabaiteko ohitura bat agurtzeko, eta askok agur-

“Ez dago ‘ze ondo ekarri gaituzun’ entzutea bezalakorik”

tzen gaituzte. Baina, ‘egun on’ edo ‘arratsalde on’ esan eta ez erantzuteak... Bestalde, autobus geltokietan autoa aparkatzen dutenek edo bigarren ilaran uzten dutenek ere neure onetik ateratzen naute.

Eta zerk betetzen du gehien autobus gidari bat?

Beti gustatu izan zait gidatzea, eta hori da nire lanetik gehien gustatzen zaidana. Bestalde, as-

ko betetzen nau jende jatorragaz bidean bat egiteak eta horiek gure lana eskertzea. Ez dago ‘zein ondo ekarri gaituzun’ entzutea bezalakorik. Oso pozgarria izaten da. Lana ondo egiten dugunaren seinale da.

Ibilgailuetan une oro hobekuntzak egiten dabilta. Gidatzerako orduan alde handia nabaritzen duzue?

Aldea izugarria da. Oraingo autobusak makina batzuk dira. Egia da makina horiek kontrolatzeko gai izan behar dugula gidariok, baina itzela da horrelako ibilgailuak gidatzea. Bestalde, bidaiariarentzat ere askoz erosagoak diren ibilgailuak dira oraingoak.

Oraingo autobusak segurua goak dira?

Bai, segurtasun aldetik hobeto daude. Askoz ere segurua goak dira. Esaterako, orain, autobus guztiak izaten dute segurtasun-uhala bidaia luzeetarako, eta baita hiri barruetan ibiltzen diren autobus askok ere. Horrek segurtasun ikaragarria eskaintzen dio bidaiariari.

Autobusa gidatzen ibili aurretik, autoeskolan irakasle lanean aritutakoa zara.

Hala da, bai. 25 urtetik gora eman nituen autoeskolan irakasle bezala lanean. Garai hura oso polita izan zen, gazteei irakastea lan oso polita da eta. Garai hartan jendea irrikaz zegoen hamazortzi urte egin eta gidabaimena ateratzeko, eta gustua ematen zuen hasiberriekin autoagaz ibiltzea. Egia da azken urteetan autoeskolan beherakada bat nabaritu nuela, gazteek ez zeukatena eta horrelako irrikarik gidatzeko. Baina argi daukat gazteei irakasten ibiltzea lan oso polita dela, eta ni neu behintzat asko asetu ninduen horrek.



Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak) - Balazta-pastillak - Motelgailuak

MICHELIN **BFGoodrich** **BRIDGESTONE** **Firestone**

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622
www.neumaticosetxebarria.com




Ezbeharretarako diru gehiago gorde behar dute aseguru-etxeek, eta horrek seguruen prezioa igotzea ekarri du

Seguruak eskaintako bermeek garestituko dute aseguru-etxeak emandako prezioa



Seguros Bilbao aseguru-etxeak Durangon du bulegoa. Jabier Rueda eta Asier Martinezek bertan egiten dute lan.

> ASEGURUAK Aitziber Basauri Aseguru-etxeen artean itzela da lehiakortasuna gaur egun. Are gehiago legeak aseguru-etxeak ezbeharretarako diru gehiago gordetzera behartu dituztenetik. Halaxe azaldu digute Seguros Bilbao aseguru-etxeko Jabier Rueda eta Asier Martinezek. Oro har, aseguruak garestitzea eragin du horrek, gidariak inoiz istripurik izan ez badu ere.

Aseguruak eskaintako bermeek garestituko dute aseguru-etxeak emandako prezioa. Hala ere, gidari moduan ditugun hobariak, dugun ibilgailu motak eta motorraren potentziak ere eragingo dute horretan. Gidari berria garen ala ez, eta autoa non dagoen erregistratuta ere hartuko dute aintzat. Baita gure adina ere.

Hirugarrenentzako aseguru edo arrisku orotarako aseguru izan daiteke gure hautua, frankiziagaz edo frankiziarik barik. 20 urtean aseguraturuta egon ostean, istripurik izan gabe, auto berria erosi duenak

Aseguru-etxeek diru gehiago gorde behar dute, ezbeharretarako

Erantzukizun zibileko aseguru izatera behartzen gaitu legeak

arrisku orotarako aseguru hartu behar du? Bakoitzaren pentsaeraren arabera hartu dela uste du Martinezek. Kontuan hartu behar da zenbat eta berme gehiago izan, orduan eta garestiago aterako zaigula aseguru. “20 urte dituen autoa arrisku orotarako aseguruagaz ere ezagutu dut. Hala ere, jakin behar da auto horren balioa asko bajatu dela, eta kolpe bat konpontzeak autoak berak baino gehiago balio badu, erabateko hondamen moduan hartuko dutela eta ez dutela konponduko; berdin dio hirugarrenentzako aseguru edo arrisku orotarako badauka ere”.

Hirugarrenentzako Krisi ekonomikoa hasi zenetik hona hirugarrenentzako ase-

guru kontratatze joera dagoela azaldu digu Martinezek. Aukerarik merkeenerako joera dago. Legeak erantzukizun zibileko aseguru izatera behartzen gaitu. “Hala ere, istripu batean gerta daiteke bestearen asegu-

Hirugarrenentzako aseguru kontratatze joera dago

Generoak ez du eraginik aseguru kontratatze orduan

ru-etxea kalteen erantzule ez egitea, baimendutako alkohol-tasa gailendu duelako gidariak, ez duelako aseguru... Orduan epaiketa bat egongo da, eta kaudimengabea agertuz gero, inor ez da kargu egiten”. Horrelako egoerei aurre egiteko, aseguru-etxe batzuek hirugarrenentzako kaudimengabea ere hartzen dute bere gain. Seguros Bilbaoen kasuan, beti. “Horrelako prestazioak kendu egiten dituzte askok, bezeroa agerian geratuz. Guk gure gain hartuko dugu dena, eta gero epaitegiatarako joko dugu”. *Low-coast* aseguru-etxe asko daude, Martinezen esanetan; prezio merkea eskaintzen dutenak, baina gero erantzuten ez dutenak.

Emakume edo gizon, berdin Generoak ez du eraginik aseguru kontratatze orduan. Orain urte batzuk merkeagoak ziren bizi-aseguruak emakumeen kasuan, baina Europar onartutako legediak aldatu egin zuen hori. Gizona zein emakumea izan, berdina da gaur egun. Gidariaren ezbehar kopuruak aldatuko du aseguruaren prezioa. Honetan gidari berriak dira kaltetuenak. “18 urteko gazte batek ez du aukerarik izan hobariak izateko, baina ezta gidabaimena atera berri duen 50 urteko pertsonak ere”, dio Seguros Bilbao ordezkariek.

Furgoneta, autoa, motorra... estatistika zehatz baten menpe egongo da bakoitza, eta horrek eragina izango du aseguru kontratatze orduan; baita matrikulazio datak eta motorraren potentziak ere. Garajerik dugun edo ez ere hartuko dute kontuan, eta ibilgailua non dagoen erregistratuta: “Espainian Galizia da lekurik garestiena, adibidez. Estatistika kontua da. Baliteke, beraz, Berriz Zaldibar baino garestiagoa izatea”, argitu dute.

Aseguru edukitzea derrigorra da legez. Hala ere, litekeena da aseguru-etxeak ukatzea. Hiru aseguru-etxeek ukatuz gero, Seguru Partzuergoak aseguratuko gaitu. Hirugarrenentzako aseguru egingo digu, baina askoz garestiago aterako zaigu.



UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxe: 946 203 818
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com



RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

“Erretiratzeko naizenean, kotxe denak saltzeko asmoa dut”

Auto lasterketen munduan binomio oso ezaguna dira Lebeiti pilotua eta bere Renault 5 horia

> AUTO LASTERKETAK J. Derteano
Renault 5 zuri-horia, 35 urtekoa, atzean gurrpil zabal-zabalekoa auto barruko motorearen indarrari eusteko. Mendi igoera batean ezaugarri horiek dituen autoa ikusiz gero, Jose Ignacio Erdoiza ‘Lebeiti’ (1956, lurreta) izango du gidari. 25 urte daromatxate elkarregaz, eta oraindik sasoian daude.

Adinean aurrera egin ahala, apaldu egiten da irabazteko gosea?

Ez, lehengoei zein oraingoei, denei irabazi gura izaten diet. Gazteek esaten dute: “Lebeitiri irabazi behar diot”. Eta nik: “A bai? Ba, ikusiko duzu nor naizen!”. Gazteak gogor datoz, baina ez dizkiet gauzak erraz jarriko.

Gazte horietako bat semea duzu: Santiago Erdoiza.

Bai, eta bera ere irrikan dago niri irabazteko. Orain arte beti irabazi diot, baina ni menderatzea dauka buruan. Nik ahal dudanean lagunduko diot, baina bolante baten aurrean esertzen zarenean... ez dago lagunik!

Semeak gaudituko du aita?

Gidatzeko duen abilitateagatik baietz esango nuke, baina arlo ekonomikoagatik ezetz esan behar dut. Ilusioagaz dabil, baina diru asko behar da.

Mundu krudela da automobilismoarena. Beste hainbaten artean, hor daukagu Igor Urien kasua ere.

Horixe adibide argi bat! Igor Urien futbolaria balitz, lehen mailako talde batean egongo litzateke, baina begira zer gertatu

den. Espainia osoan zenbat lagun bizi dira honetatik? Hamar, asko jota. Talentuak badaude baina... Horregatik, eskerrak eman gura dizkiot Gaursari bere laguntzagatik.

61 urte dituzu. Erretiroa hartzea gura baino gehiagotan datorkizu burura?

Ez, ez. Autoak eta biok ehun urte betetzen ditugunean erretiratuko naizela esan izan dut. Nik 61 ditut, eta autoak 35. Beraz, 96 guztira. Urte bi geratzen zaizkit... [Pentsatzen geratu da] Baina, ez, urte gehiago izango dira (barreak). Oraindik gazte sentitzen naiz.

Renault 5 Turbo horia eta biak banaezinak zarete. Zer esan gura du auto horrek zuretzat?

Aurretik Simca eta Ford Escort bat izan nituen, baina Renault eta Gaursagaz lan egiten nuen, nire ilusioa marka horretako kotxe bat izatea zen. Renault 5 Turboa nahiko merke erosi nuen. Niretzat amets bat betetzea izan zen, oso kotxe garestiak zirelako. Urteak joan ahala, handitu egin da bere balioa.

Orduan ametsa izan zen eskuartzeko gaitza zelako, baina, gaur egun, 25 urteko ibilbidearen ostean, beste esangura sakonago bat du zuretzat?

Ez pentsa, ni ez naiz hainbeste gauzagaz maitemintzen. Erretiratzeko naizenean, dena saltzeko asmoa dut. Ez dakit zer egingo dudana, baina nire asmoa ezer ez gordetzea da. Nik milioi eta erdi pezeta ordaindu nuen, eta oraintsu 135.000 euro eskaini dizkirate autoarengatik. Espai-



“Irabaztea gero eta gaitzagoa da, errealitatea onartu beharra dago”

nia osoan lehiatzen ari den horrelako auto bakarra da.

Ezaugarri zehatzak ditu. Indar handia, motorea atzean, gurrpil zabalak... Zergatik aukeratzen duzu kontrolatzeko hain gaitza den auto bat?

Andorran nirearen moduko beste auto bat dago. Haren jabeak esan zidan berri bat probatuko banu ez nukeela nirea berriro erabiliko. Horregatik ez dut besterik probatu gura. Carlos Sainz Espainiako azpitxapeldun geratu zen Renault 5 Turbo batez, eta asko irakatsi zion autoa izan zela esan zuen, eta gaur egungo

gazte askok ezingo luketela kontrolatu. Behin Gorka Antxustegi gidaria autoan sartu, eta esan zidan: “Nik ez dut ausardiarik burdinazko kaxa honetan ehun metro ere egiteko”.

Aspaldiko urteetan mendi lasterketetan zabilta, rallyesprintak alboratuta.

Bai, denbora kontuagatik da. Erosoagoa da. Lehiatu, bueltatu, autoa deskargatu, eta etxean.

la 30 urte daromatxazu lehian. Zein lorpenekin geratzen zara?

1997an mendi igoeren Euskadiko txapelketa irabazi nuen, maila absolutuan. Aitor Zabaletak dena irabazten zuen orduan bere barketaz, baina Espainiako txapelketan ere bazebilen, ez zuen Euskadiko denetan parte hartu, eta neu geratu nintzen txapeldun. Azken lasterketa Azpeitian izan zen. Labaka eta

bion artean zegoen txapela. Labaka Azpeitian bizi da, eta etxeko igoera zuen. Baina irabaztea lortu nuen. Une polita izan zen.

Labakari ez zion graziarik egingo bere etxean galdu izanak.

Ez, baina bera izan zen lehenengo ni zoriontzen.

Aurrera begira, oraindik badago lortu gura zenukeen zer-bait? Beste txapelketaren bat...

Gero eta auto indartsuagoak daude, eta gaitza da. Errealitatea onartu beharra dago. Nik nire buruagaz egiten dut konparazioa. Aurreko urteetako nire denborak aurtengoekin alderatzen ditut. Eta, orain arte, urterik urtera, aurreko aldiak berdin edo hobetu egin izan ditut. Horixe da nire ilusioa, oraindik sasoian nagoela eta denborak irtetzen direla ikustea. Hori amaitzen den egunean...

 **Garaje miguel**
Arzubia, 10A - 1 Pabiloia
Matiena - Abadiño
Tel.: 94 681 91 61
www.garajemiguel.es


**GARBIKETA · TAPIZERIAK
MEKANIKA · GURPILAK**

Certified First
AUTOGAIN
TALLERES

TXAPA ETA PINTURA

San Agustin industrialdea
2. mod. 17. nabea
ELORRIO
Tel. - Faxes: 946 056 732
Mug.: 679 174 367
autogain@hotmail.es

 **DESGUACES PILASTRA**

AUTOAK DESEGITEKO LANTOKI BAIMENDUA

- Erabiltzen ez diren ibilgailuak deskontaminatzeko zentro baimendua EU2 / 097 / 04 gestorea.
- Ordezko pieza erabilien salmenta.

GRUA ZERBITZUA

IBILGAILUEN BEHIN BETIKO BAJA EMATEA
eta Faxes: 946 218 079
OSAGARRIEN SALMENTA
☎ : 946 201 787

Fauste Auzoa, 18
Zugastietara bidean
48215 IURRETA
gestion@desguacespilastra.com



Renault KADJAR

Gida ezazu ustekabekorantz



Etor zaitez probatzera

LIFE ENERGY TCe 97kW (130CV)

17.100€-tik aurrera*

Gidatu orain, eta

HASI ORDAINTZEN IRAILEAN*

Renault Kadjar gama: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,8 litro eta 6,2 litro artean. CO2 isuriak (g/km): 99 eta 139 artean. *Eskaintza honek Penintsularako eta Balearretarako baliatzen da. 2017ko maiatzaren 12tik 31ra. Klima praktika berriaren Renault Kadjar Life Energy TCe 97kW (130CV) kotxearen eskaria egiti, RCI Banque SA (Sukurtsiala Espainian) bidez finantzatu eta erosita Renault berriaren truke edozein markako ibilgailu bat erregatzen duten partikular eta autonomoentzat. Hiru hilabeteko gabezia, Zergak eta RECSAK eskaintza garrantzitsuak, promozioak eta Reprise Ekintza barne. Finantzatu beharrek gubieruko zenbatekoak: 6.000 €. Gubieruko jaurikortasuna: 24 hilabete. Ez da bateragarria beste finantza eskaintza batzuekin. Turismoetarako bakarrik balio du. Ikusten den modelo: Renault Kadjar Zen Energy TCe 97kW (130CV) gorri koloreko pintura metalizatu bereziarekin eta 48 cm-ko (19") aleaziozko hagurekin. PSP gomendatua zergekin, promozioekin eta Reprise Ekintzarekin 30.900€.

Renault gomendatzen du **elf**

f | i | y | re | renault.es

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA

www.gaursa.com



Innovation that excites

"STOCK-A KANPORA" OPERAZIOA GAURSAN



20 NISSAN QASHQAI UNITATE

GEHIENEZKO **%20** KO DESKONTUA*

APROBETXATU AUKERA ETA ERAMAN DAUZKAGUN 20 QASHQAI UNITATE MUGATUETAKO BAT %20RAINOKO DESKONTUAREKIN

GAURSA

Arriandi Auzoa, 12 48215 - Iurreta - Bizkaia - Tel. 946 205 000

Kontsumo mistoa: 3,6 - 9,5 l/100 km. CO2 isurpenak: 94 - 172 g/km.

*Eskaintza baldioduna stock-ean dauzkagun ibilgailuentzat soilik, eta indarrean egongo da 2017/05/31a arte. Qashqai-ren eskaintzaren baldintzak kontsultatu (sustapen deskontua). Eman daitekeen gehieneko deskontua ibilgailu bakoitzaren gomendaturiko FAPan Penintsulan eta Balearretan. 3D RCI Banque-ren bidez (kontratua baldintzen arabera) finantzatzen duten bezero partikularrentzat, enpresentzat eta autonomoentzat.

Kepa Junkera | Bilbo, 1965 | Jose Jabier Abasolo 'Tiliño' | Iurreta, 1946 |

“Emozio handiz gogoratzen ditut Iurretako urriko domeka haiek”

Elorrion joko du, bihar, Kepa Junkerak. Iurretako aspaldiko lagunagaz elkartu du ANBOTOk asteen

> MUSIKA Itsaso Esteban
“Garai hura ez da errepikatu-ko, eta nik aukera paregabea izan nuen ezagutzeko”, dio Kepa Junkerak, Jose Jabier Abasolo ‘Tiliño’-k ekarritako argazki zaharrak esku artean dituela. Iurretako jai batzordeak antolatzen zuen aspaldiko musika-tresna jotzaileen jaialdia izan zen Junkeraren lehenengo plazetako bat, eta ANBOTOk solasaldian elkartu ditu musikari bilbotarra eta jaialdiaren bultzatzailea.

Bizkaiko antzinako musika-tresna jotzaileen egunetan ezagutu zenuten elkar?

Tiliño: Bai, ekimen haren hari-za ezagutu genuen elkar. 1974an hasi ginen antolatzen, eta urri hasiera guztietan egin genuen, 20 urtez. Parte hartzen zuten musikarientzat erreferentzia-ko lekua bilakatu zen.

15 urtegaraz Iurretako jaialdira etortzen zineneko zer akordu daukazu, Kepa?

Kepa Junkera: 80 urte inguru-koak izaten ziren jaialdiko parte-hartzailearik gehienak, base-

rri mundukoak, eta Zabaleta, Motriku eta ni gauza arrarago ginen han. Pentsa, euskaraz ere ez genekien... Emozio handiz gogoratzen ditut urriko lehenengo domeka haiek: oso giro polita egoten zen. Errepikaezina da hura. Askok miresten ditut sasoi hartako trikitilariak: nire ibilbidean oso garrantzitsua izan da jende hura ezagutu izana. Musikari haien energia harrapatzeko gai izanez gero, eskola paregabea zen Iurretakoa. Bitarteko gutxiagaz itzelezko lana, benetan garrantzitsua, egin zuten *Tiliñok* eta Iurretako Jai Batzordeak. Ohartu ziren mundu hura aintzat hartu eta zaindu beharra zegoela. Logikoa izango zen estrategia kultural baten parte izatea altxor hura zaintzea, baina *Tiliño* bezalako herritarren borondateak eta lanak iraunarazi dute. Lider kulturalak dira, nire ustez.

Zelan hartu zintuzteten hain gazte izanda? Belaunaldien arteko talkarik izan zen?

K.J.: Uste dut hasiera batean lehiakidetzat ikusi nindutela, eta ez ninduten onartu. Ezagu-



Oso gazterik, hainbat aldiz parte hartu zuen Junkerak Iurretan egiten zuten antzinako musika-tresnen egunean.

“**Hango energia harrapatzeko gai izanez gero, eskola paregabea zen Iurretakoa**”

tu nindutenean, baina, ohartu ziren ni ez nindoala inori plazak kentzera, edo inorekin lehiatzera. Gertatu zen tal-ka mundu hartako idiosinkrasia lehiakor horrekiko izan zen. Azkenean, baina, errespetatu nautela sentitzen dut.

Baina txapelketa batzuetan ere parte hartu zenuen.

K.J.: Bai, eta oso gogoan daukat, adibidez, 1988ko txapelketa, Anoetakoa: 8.000 entzule-aren aurrean jo genuen Motrik eta biok. Nire kanta orijinalekin joan nintzen, eta inprobisatu egin nuen, eta publikoaren parte bati ez zitzaion gustatu. Txistuka hasi zitzaizkidan... Ez da erraza zure herriaren parte bat zure kontra dagoela ikustea: egunkarrietan gutunak idatzi zituzten egin nuenaren kontra, jotzen nuena ezin zela dantzatu esaten zidaten... Zailena ez da beste inork baino arinago jotzen ikastea, kritikek zugaraginik izan barik bidean aurrera jarraitzea baizik. Tapiak irabazi zuen 1988ko txapelketa hura, eta hirugarren geratu nintzen ni. Saioaren osteko egunean, baina, sari gisa eman zioten trikitia niri ematera etorri zen Tapia Errekalderra.

Tiliño, zuk zelan ikusi zenuen Keparen eboluzio hori?

T.: Hasieran niri ere kostatu zitzaidan aldaketa hain handia barneratzea, baina gero kon- turatu nintzen eboluzioa beharrezkoa dela.

Non hasi zinen jotzen?

K.J.: Bilboko Basurto auzoko Beti Jai Alain hasi nintzen euskal dantzak eta musika ezagutzen. Txistua eta alboka ikasi nituen lehenengo, baina gustukoaren trikitia nuen. Ilusio eta afizio handia neukan trikitiare-

kiko. Sentimendu bat zen, bizi egiten nuen.

Zabaleta kideagaz Bizkaiko lehenengo trikiti eskola zabaldu zenuen Durangon.

K.J.: Bai, 1985. urte inguruan hasi ginen Durangoko etxe batean eskolak ematen: Bizkaiko hainbat herritatik hasi ziren etortzen gure eskolak jasotzera. Gainera, Lekeition, Galdakaon, Bolibarren... ere ematen genituen eskolak.

Oskorri taldeagaz hasi zinen trikitia bestelako eremuetara zabaltzen...

K.J.: Oskorrigaz jotzen hasi nintzenean mundu berri bat zabaldu zitzaidan. Zorte handia izan da eurekin jo ahal izatea, eta asko ikasi dut eurengandik ere. Modu bitxian ezagutu genuen elkar: Beti Jai Alaiko komunitetan trikitia jotzen nenbi- lera entzun ninduen Oskorriko Natxo de Felipek. Harrituta geratu zen mutil gazte bat horre- lako lekuan jotzen entzunda, eta hartu-eman hasi genuen.

Zer moduz doa ‘Maletak’ diskoaren bira? Gustura zaude?

K.J.: Oso gustura nago, gogoko dudana lanetik bizitzea lortu du- dalako. Lehen bezain motibatuta nabil sorkuntzan, eta senti- tzen dut aurrekoengandik ikasi nuen guztia zelanbait bueltatu gura diodala jendeari. Bestalde, errealitatea da kulturagintzaren egoera ez dela onena: ez dauka behar duen babesik.



Kepa Junkera eta Fasio Arandia, 1985an Fasiorekin Iurretan egiten zioten omenaldian.

“Ederra da esku artean daukaguna: istorioa ikaragarria da, eta sekulakoa lan taldea”

‘Último tren a Treblinka’ eskainiko dute Eneko Sagardoyk eta Alfonso Torregrosak, bihar, Durangon

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Lepo beteta egongo den euren herriko antzokian eskainiko dute Eneko Sagardoy eta Alfonso Torregrosa aktore durangarrek *Último tren a Treblinka* obra, bihar. Urrian estreinatu zituzten antzezlanaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsiak, Vaivén Teatroyen eskuetik, eta arrakasta handiko bira eskaini dute ordutik. Durangoko San Agustino biharkoa izango da Sagardoyk eskainiko duen obra horren azken emanaldia; beste hainbat proiektutan jardungo da aurreratzean.

“Itzela izaten ari da”, dio Torregrosak, orain arteko biraz galdetuta. “Gutxitan gertatzen den bezala, hainbat elementu elkartu dira zerbait oso berezia sortzeko. Ederra da esku artean daukaguna; istorioa ikaragarria da, eta sekulakoa lan taldea”. Torregrosak adierazi du Daniel pertsonaiak. Sagardoyk adierazi izan duenez, izan duten erronkarik handienetako bat sufrimendu hartara ahal beste hurbiltzea izan da, errealtate

Pertsonaia ahaztezina

II. Mundu Gerran umezurztegi batean kokaturiko istorioa da *Azken tren a Treblinkara*, eta pertsonaia erreala baten azaletik dihardu Madrilen bizi den Alfonso Torregrosa durangarrak: 1942an Varsovian ume juduentzako umezurztegien zuzendari izan zen Janusz Korczak mediku eta pedagogoa da Torregrosa. Antzezten duena pertsonaia erreala izateak asko markatu duela dio Geroa antzerki taldeko kidea izan zen Torregrosak: “Pertsonaia gutxigaz gertatzen den moduan, berari buruz pentsatzeari utzi ezin diozun gizon bat izan zen Korczak”. Hain zuzen ere, hari omenaldia ere izan gura du antzezlanak.

Eneko Sagardoy 22 urteko Daniel da antzezlanean. Korczakek zuzentzen zuen umezur-



Publikoak harrera oso beroa egin dio lantaldean Sagardoy eta Torregrosa durangarrak dauzkan antzezlanari.

tegiko pedagogia humanistaren eta errealtatearen arteko koherentzia eza bistaraten du Daniel pertsonaiak. Sagardoyk adierazi izan duenez, izan duten erronkarik handienetako bat sufrimendu hartara ahal beste hurbiltzea izan da, errealtate

hura ikusleei ahalik eta ondoen helarazteko.


Alfonso Torregrosa, Jose Ramon Soroz eta obrako gaitortzeko aktoreekin lan egitea ikasbide handia izan dela azpimarratu du Sagardoyk. “Hau bezalako bederatzi aktoreko

ekoizpen handi batean parte hartu ahal izatea oso aberasgarria izan da”, gehitu du.

Ikusleen bidaia

Ikuslea istorioaren barruan dago *Azken tren a Treblinkara* antzezlanean, eta Torregrosak dioenez, “bakoitzak bere kokapenetik biziko duen obra bakarra izango da”. Korczakek zuzentzen zuen umezurtegi literetan eta mahaietan jesaritzen da publikoa —genozidio hura pairatu zuten umeen izen-abizenak daramatzate literak—.

“Emanaldi baten ostean, lagun batek esan zidan sekula ez zuela ikusi hainbeste jende aldi berean negarrez; eta horrenbeste jendez inguratuta, lehenago ez zuela inoiz emanaldian bezala negar egin”, dio Torregrosak. “Oso gogorra izan arren, baina, badago, nire ustez, ongizate sentazio bat obra hau ikusi ostean. Ez poztasunagaz lotzen dugun ongizate mota hori, baizik obra ikustean sentitutakoagaz gustura egotetik eratoritzen dena”.



Bihar antzeztuko du Sagardoyk Danielen papera azkenengoz.

GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA CASTILLO

Kazetaria



Kabitu-ezin

Bip-bip. Galdera heldu da Whatsapp taldera: zer figura geometrikorekin lotuko zenukete bertsoa? Pertsona beste erantzun: laukia, piramide oktagonala, borobila, neurriaren arabera X aurpegidun poliedroa... Ez gara ados jarri, bertsoa ez da forma zehatz batean kabitu.

Geometria gorputzen tamaina, itxura eta posizio erlatibo zein espaziala neurtzeko asmatu zen. Eskura genuena matematikaz betetakoan, ezezagunak zaizkigun distantziak eta altuerak neurtu nahi izatera igaroginen. Neurgarria ez dena ere neurtzera. Ulergarritasunaren estalpe bila, ideia ulertezinekin kabitu ezinda.

Horrela pasa ote ginen dena sailkatu eta zehazteko premia sentitzera? Bizitza galderaz itoztera?

Momentuan kabitu-ezinek garrantzia ordulariko segundak emeki aurrera egiten dutela ikustera, joan badoan denboraren kontzientzia hartzera. Bitartean, esku artean dugun orori galderak iltzatzea dugu denbora-pasa: zergatik? Noiz? Nola? Zer gara? Zer izan gintezke? Noiz arte? Ahaztu egiten dugu bizitza ez dela etorkizunean kabitzen.

Gorputz zein formen propietate metrikoen zorrotasunean ezin geure bizitzak kabitu; bai, bertsoan, pertsona beste errima eta doinu konbinazio dituen metaforan. Bat-batekoak unea baino ez baitu buruzagi, horixe inposizio: uxatu beldurrak, alboratu galderak, erabakiak hartu, uneko olatuaren kulunkan dantza egin eta sortu eztanda. Ahaztu kabitu-ezina, bihurtu bizitza bertso.

Último tren a Treblinka
Vaivén Antzerki Taldea
Maiatzaren 13an
20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

San Agustín KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

MAIATZAK 12
21:30ean
JAM SESSION
JAM SESSION

MAIATZAK 18
21:00etan
AMOR CON AMOR.
RAFAEL AMOR ETA
SALVADOR AMOR
KONTZERTUA

MAIATZAK 19
22:00etan
MAIDER +
IRATXE MUGIRE
KONTZERTUA

aste kulturala

MAÑARIA 2017

Maiatzaren
13tik 21era

MAIATZAK 13
EUSKAL HERRIKO
ARTISAU
GARAGARDO AZOKA
18:00-23:30 herriko plazan.



MUSIKA ZUZENEAN

- Bazter Trio
- Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek

DOAKO AUTOBUSA

Durango (Madalena)-Mañaria:
18:00-20:00-21:00-22:00
Mañaria-Durango (Madalena):
22:30-23:30

MAIATZAK 15

ETORKIZUNEN PLAN OROKORRA

19:00 liburutegi zaharrea.
Tailerra: plan orokorra zein egoeratan dagoen azaltzeko eta egon daitezkeen aldaketen berri emateko.

MAIATZAK 16
ENDA: euskal epika –
historia – mitologia
(ele bitan)

TOTI
MARTINEZ
DE LEZEA
HITZALDIA
19:00 liburutegi zaharrea



MAIATZAK 17
PORROTAREN ALDE
(euskaraz)

ALBERTO
IÑURRATEGI
HITZALDIA
19:00 liburutegi zaharrea



MAIATZAK 18
MUSEOEN
NAZIOARTEKO
EGUNA

11:00-13:00 / 17:00-20:00
Hontza Museoan sarrera doan

HAURRENTZAKO
HERRI KIROLAK

18:00-19:30 herriko plazan.

MAIATZAK 19
UDABERRIKO
KONTZERTUAK

20:30 Mañariako Andra Mari parrokian.

- Bermeoko Abesbatza
- Durangoko Orfeoia
- Mañariko Kirikiño Abesbatza

MAIATZAK 20
ARRANTZA
TXAPELKETA

9:00 Mañariko errekan.
Mugarra Ateneo
Cinegético elkarte

KANTU POTEA
+ AFARIA

19:30 Herriko tabernan.
Txartelak tabernetan salgai
(10€/pertsonek)
Herritarrak + Tabernak

MAIATZAK 21
XXII. ARTISAU,
ELIKADURA ETA
LANDARE AZOKA
eta XXI. AZPI GORRI
MONOGRAFIKA

10:00-14:00 herriko plazan.



MAÑARIKO
UDALA



Peru Magdalenaren jarraibideekin ibili dira, astean, azken entseguak egiten.

‘Koloretako munstroa’ ipuinetik sortutako obra, musika eskolan

Musika eta antzerkia dira 5 urteko ikusleei zuzenduriko lanaren osagaiak

> MUSIKA Itsaso Esteban Ana Tere Maestro eta Eunata Zarrabeitia biolin irakasleen aspaldiko ideia gauzatu, eta *Koloretako munstroa* ipuinean oinarritutako ikuskizuna sortu

dute Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasleek. Peru Magdalena idazle durangarraren eta Haritza Rodriguez aktore zaldibartarraren laguntzagaz sortu dute ikuskizuna,

eta gaur egingo dute estreinaldia. Durangoko eta Iurretako 5 urteko geletako umeentzat hiru emanaldi eskainiko dituzte, musika eskolako aretoan, gaur eta maiatzaren 17an. Gogotsu

daude sortzaileak ikuskizuna publikoari eskaintzeko. “Umeak ikusle zorrotzak dira, gustuko badute giro polita sortuko da, eta horrela ez bada, oso agerikoa izango da”, azpimarratu du Eunata Zarrabeitia irakasleak.

Haritza Rodriguez zaldibartarragaz, biolina, txeloa eta pianoa jotzen duten musika eskolako hamahiru bat gazte izango dira oholztan. Rodriguezek egingo du antzeppen lana, eta beragaz elkar eragiten eta zuzeneko musika jotzen arituko dira 13 eta 17 urte arteko musikariak. Gainera, emozioei lotutako argiztapen berezia izango du oholztzak ikuskizunerako.

Bost emozio

“*Koloretako munstroa* ipuinean oinarrituriko bost emozio oinarri hartuta Haritzak sorturiko antzezpena da ikuskizunaren harria”, azaldu du Peru Magdalenak. “Ikuskizunagaz, eskoletan emozioen inguruan berba egin dezaten bidea ematen saiatu gara”, azaldu du Magdalenak. Emozio desberdinak identifikatu eta berauek kudeatzen ikasteko proposamen pedagogiko bat ere izan gura du ikuskizunak.

“Bost emozio horiek iradokitzen dituzten musikak joko dituzte orkestrako kideek”, gehitu du Zarrabeitia. “Ez ditugu oso ezagunak diren doinuak aukeratu”, azaldu du biolin irakas-

leak erreperitorioaz, “badaude parte batzuk eskolako ikasleek eurek sortutakoak, moldaketak dira beste batzuk...”.

Ikuskizunari forma ematera koan oso ondo konpondu direla diote Magdalenak, Rodriguezek eta Zarrabeitia. “Oso pozik gaude esperientzagaz, asko ikasi dugu elkarrengandik, heldu zein gazteek”, diote. “Oso prozesu aberasgarria izan da parte

Peru Magdalenaren eta Haritza Rodriguezen laguntzagaz sortu dute obra, musika eskolan

Rodriguezekin, biolina, txeloa eta pianoa jotzen duten musika eskolako 13 gazte izango dira oholztan

hartu dugun guztiontzat; ikasleek sortzaile profesionalekin lan egiteko aukera paregabea eduki dute, eta gauza asko ikasteko aukera eskaini die sorkuntza prozesuak”, esan du Zarrabeitia. Oraingoan egin duten bezala, proiektuak lan egitea da Zarrabeitiaren ustez eskolan ikasitakoan sakontzeko modua.

Rafael eta Salvador Amor aita-semeen ahots indartsuak izango dira entzungai, Durangon

Plateruenean joko dute Rafael eta Salvador Amor kantautoreek, maiatzaren 18an, 21:00etan

> MUSIKA I. E.

Amor con amor. El padre, el hijo y el espíritu canto izenburuko emanaldia eskainiko dute Rafael Amorrek (Buenos Aires, 1948) eta Salvador Amor (Madril, 1980) haren semeak, maiatzaren 18an, 21:00etan, Durangoko Plateruenean. Aita-seme kantautoreen ibilbideko kantak izango dira entzungai, Durangoko kafe antzokiko saioan.

Orain lau hamarkada idatzitako aldarrikapen letrak, zoritxarrez gaur egun oraindik ere zentzuz beterik daudenak, kantatuko ditu Rafael Amor argentinarrak, Durangon.

Duela 40 urte *No me llames extranjero* diskoa kaleratu zuenetik aldarrikapena eta samurtasuna eskaini izan ditu bere kontzertuetan Amor aitak. Politikoki konprometituriko kantautorearen sentsibilitatearen erakusle da Mercedes Sosa abeslariagaz egin zuen *Corazón libre*



Rojo Cancionero taldean dihardu Salvador Amorrek; 40 urte baino gehiago daramatza Rafael Amorrek kantagintzan.

kantaren bertsio gogoangarria, bestek bestek.

Katea ez da eten

Datorren egunean Durangoko Plateruenean eskainiko duen emanaldian Salvador semeagaz jardungo da Rafael Amor: bi musikarien belaunaldietako

poesiak eta kantuak izango dira entzungai Amor aita-semeen ahotsean. Bakoitzak bere bide-tik, biek egin duten ibilbideko kantez osaturiko errepertorioa eskainiko dute Plateruenean.

Bakarka zein beste musikari batzuek lagunduta aritzen da Salvador Amor musikaria.

2010. urtean Rojo Cancionero y Banderas Rotas taldea sortu zuen Gabriel Ortega kideagaz, Madrilen. Belaunaldi desberdinetako kanta aldarrikatzaile eta koprometitu ezagunen bertsioak eskaintzen dituzte Rojo Cancionero taldekoek euren kontzertuetan.

Ageda Ibarra gaztearen margolanak, Napozt tabernan

> PINTURA I. E.

Ageda Ibarra durangarraren olio-pinturen erakusketa dago, maiatzaren 31ra arte, Durangoko Napozt tabernan ikusgai. Hamahiru urteko durangarrak egindako hamalau lanek osatzen dute bere lehenengo erakusketa hori.

Hamahiru urteko durangarrak egindako hamalau lanek osatzen dute erakusketa

Durangoko Kurutziaga margo akademian ikasten du Ibarra, eta azken hiru urteetan han egindakoak dira erakusketako koadroak. Umetatik izan du marrazteko zaletasuna, eta oso motibatuta dago erakusketagaz. Oso eskertuta dago tabernako zein akademiako arduradunei.

Itsasne Larruskain Antxia | Elorrio Futbol Taldea | Abadiño, 1992

► **KIROLA** Maialen Zuazubiskar Gazte-gaztetatik futboleant jokatzen du Itsasne Larruskain abadiñarrak. Egun, Elorrio Futbol Taldeko kapitainetako bat da, eta denboraldi honetan Euskal Ligako pitxitxia izan da.

Denboraldi honetan emakumezkoen Euskal Ligan golik gehien egin dituen futbolaria zara. Zenbat gol sartu dituzu? 30 jardunalditan 26 gol sartu ditut. Esan beharra dut gol horiek nik sartu ditudan arren, talde guztiarenak direla, denok egin baitugu gogor lan gol horiek lortzeko.

Lan gogor horrek emaitza onak eman dizkizuela esan daiteke, denboraldia laugarren postuan bukatzea lortu duzue eta.

Espero ez genuen emaitza lortu dugu Euskal Ligako bigarren denboraldian. Gutako inork ere ez genuen espero horren aurrean ibiltzea. Oraindik, maila honetan hasiberri batzuk baino ez gara. Baina, partiduz partidu joanda, gu baino hobeak diren taldeak menperatu ahal izan ditugu, eta denboraldia laugarren postuan bukatu dugu.

Zein izan da gakoa?

Taldeko kide denak gara bat, oso ondo ezagutzen dugu elkar, eta horixe izan da Elorrioren gakoa. Gure taldearen izaeraren parte da denok bat izatea, futbolari, entrenatzaile, staff tekniko... Ordu asko pasatzen ditugu denok elkarregaz, eta talde bat eratzea lortu dugu.

Euskal Ligan bigarren urtea daramazuen arren, mailara ohitu zaretela esan daiteke?

Maila honetara ohitzea ez da erraza, partidu guztiak oso lehiakorrek eta zailak dira eta. Hala ere, kategoria oso polita da. Hasieran, gure helburua mailari eustea zen, eta apurka-apurka gure burua onenen artean ikusi dugu, nahiz eta gu baino talde askoz hobeak egon.

Zuek baino talde hobeak dauzela diozu behin eta berriz, baina duela urtebete hamargarren egitetik laugarren egitera pasatu zarete.

Horrela da, bai. Baina dena esan behar da; futboleant jokatzen gu baino hobeak dira, bai liga lehen hiru postuetan bukatu dutenak, Zarautz, Bizkerre eta Oiartzun, bai gure azpitik gelditu den Leioa ere. Hala

“Denok gara bat, ondo ezagutzen dugu elkar, eta horixe da Elorrioren gakoa”

Euskal Ligako pitxitxia da Larruskain; denboraldi honetan 26 gol sartu ditu abadiñarrak



Itsasne Larruskain Elorrio Futbol Taldeko kapitainetako bat.

“**Mailara ohitzea ez da erraza. Partidu guztiak oso lehiakorrek eta zailak dira**”

ere, aurten ikusi ahal izan dugu Gontzal Arana entrenatzaileak arrazoia duela, eta intentsitatean eta gogoan indarra jartzeko badugu, irabazteko aukerak ditugula. Denboraldi honetan, partiduz partidu hiru puntuen bila joan gara, eta horrek emaitza onak ekarri dizkigu.

Euskal Ligatik bigarren mailara jauzia emateko moduan ikusten duzu taldea?

Gaur egun ezinezkoa dela esango nuke. Mailaz talde bakarrak igotzen du, eta momentu honetan gu baino talde askoz hobeak daude. Hala ere, egia esan, duela urte batzuk norbaitek esan izan balit Euskal Ligan jokatzen egongo ginela, ez nion sine-tsi ere egingo.

Bestalde, azken urteetako zure bilakaerari erreparatuz, denboraldiz denboraldi hobetzen joan zaren kirolaria zara. Egia da azken urteotan dezentte hobetu dudala. Futboleant jokatzen hasi nintzenetik urtez urte hobetzen joan naiz, eta horretan urte hauetako guztietako entrenatzaileek eragina izan dute, besteak beste, Matias Gonzalezek, Tonik, Jon Larrañagak, Mikel Arrubek, Aitor Azpitartek —egun gizonetako ohorezko mailan dabil— eta Gontzal Aranak. Baina, egia esan, hobekuntzarik handiena azken urteetan egin dut, eta horretan Elorrioren dugun *staff* teknikoak asko lagundu dit.

Zerbait berezia egin al dute oraingo taldekoek?

Gontzalek, Mikelek eta lagun-tzaile lanetan ibiltzen den Markelek oso ondo ezagutzen gaituzte. Gainera, entrenatzaileak konfiantza du gugan, eta hori ezinbestekoa da talde baten funtzionamendurako. Horrez gain, partiduak bukatutakoan egin dugun lanaren balorazioa egi-

“**Elorriok zale bereziak ditu, eta partidu guztiak polit egiten dituzte**”

ten du entrenatzaileak, eta hori ezinbestekoa da ikasteko.

Zure kirol ibilbideko urterik gehienak Elorrioren egin dituzun arren, hasierako urteak ez zenituen bertan egin.

Hamar bat urte gaz herriko talde txiki batean hasi nintzen futbiton jokatzen, Traña-Matienan. Garai hartan, talde xume bat genuen, taldekide baten aita zen gure entrenatzailea, eta ondo pasatzea genuen helburu. Ondoren, hamalau urte bete nituenan taldez aldatzera behartuta nengoan, eta, orduan, inguruko talde batera jo nuen. Aitararen laguntzagaz nire kirol ibilbideari jarraipena eman ahal izan nion, eta ordutik Elorrioko futbol taldean nabil.

Hamaika urtez, beraz, Elorrioko taldean zabilta?

Bai. Garai hartan zorteduna izan nintzen, baiezkoa eman zidatelako. Hasieratik oso gustura aritu naiz, eta bertan jarraitzea dut helburu. Etxeko partiduetan zein kanpokoetan sortzen den giroa izugarria da. Elorriok zale bereziak ditu, eta partidu guztiak polit egiten dituzte. Hemendik denei eskerrek ematea gustatuko litzaideke, eta jendea animatu egin gura nuke gure partiduak ikustera etortzeko, neskak batez ere. Partiduak ikusten hasi, eta neska askok zelaian futboleant jokatzen bukatu dute. Kirol polita da eta giro bikaina izaten dugu.

Athleticen emakumezkoen talde gazteagaz partidu batzuetan ere aritu ei zinen.

Gazte mailan urtebete egin nuen Athleticen. Lagunarteko partiduak jokatzen genituen. Esperientzia moduan urte positiboa izan zen, baina, egia esan, garai hartan lagunekin futboleant jokatuz ondo pasatzea baino ez nuen helburu.

San Juan Momoitiorako igoyerari eutsiko diote aurtengo Durangoko Klasikoan

Iaz egindako apustuaren balorazio positiboa egiten dute antolatzaileek, eta igoyerari errepikatuko dute



Txirrindulariak iazko klasikoan, San Juan Momoitiora daraman aldapan gora. M.Zuazubiskar

> TXIRRINDULARITZA J. Derteano Iaz Durango-Durango Emakumeen Saria klasikoko ibilbidean Garaiko San Juan Momoitiorako igoyerari gehitu zuten. Bide bazterrak ikusle ziren, txirrin-

dulariak bizikletan aldapan gora oker-oker eginda ikusteko. Ikuskizun handia eskaini zuen igoyerari izan zen, eta aurtengo errepikatzea erabaki dute Duranguesa elkarteko antolatzaileek.

Juan Mari Baliarren oroimeneko klasikoak 15:00etan hasiko da, martitzenean, Ezkurdin, eta toki berean izango du amaiera, Annemiek Van Vleuten faborito nagusia dela.

Bira hasiko da

Klasikoaren biharamunean, eguaztenean, Emakumeen Bira hasiko da Iurretan. 16:00etan hasita, Durangaldeko hainbat herri (Abadiño, Atxondo, Elorrio, Berriz eta Zornotza) zeharkatuko ditu lehenengo etapak.

UCI mailako 19 taldeetako bat eskualdekoa da: Bizkaia-Durango. Agurtzane Elorriagak zuzendutako taldeak Mavi Garciarentzat lan egingo du. Iaz 17. tokian amaitu zuen, eta aurtengo hamar onenen artean sartzen saiatuko dira. Aurtengo ibilbidea Palma txirrindulariaren dohaintzat egokia dela uste dute. Etapa garaipenentarako, Lorea Llamas da beste aukera bat. Joan zen asteburuan Emakumeen Aiztondo Sari Nagusia irabazi zuen katalanak eta aldapan gora ondo moldatzen da.

ADITUAREN TXOKOA

ALFONSO ARROIO

ETBko kirol kazetaria



Hogeita hamar

Zinez zenbaki biribila. Hogeita hamar urtera heltzarekin bat, heldutasunean garelako dioskue. Urteak aurrera joan ahala, eskarmentua hartu eta horretaz baliatzen gara hainbat eta hainbat erabaki hartzeko tenorean. Zirt edo zart egiteko garaia izaten da sarritan. Adin horretara iritsi da Emakumeen Euskal Bira. Euskal Herrian egiten den emakumeen txirrindulari lasterketa zaharrena eta Europako zaharrenetakoa. Urrun gelditzen da 1987. urtea.

Zoritxarrez, ordutik ez dira gauzak asko aldatu emakumeentzat. Gizarteak ez du behar besteko aurrerapenik egin berdintasunean eta parekidetasunean. Emakumeen kirolak urratsak egin ditu, baina oraindik ez du merezitako oihartzunik lortu. Gizonezkoen beste prestatu arren, ordaina herena baino gutxiago izaten da. Horren errudunak hedabideak eta kazetariok ere bagara. Mea Culpa oihukatu beharrean gara ozenki. Merezki eta behar duen laguntza guztia eman behar diogu, bere garaian Iurretako Txirrindulari Elkartek hartutako erabaki ausartari. Munduko txirrindulari onenak gure errepideetan bertatik bertara ikusteko aukera gutxi izaten ditugu. Datorren astean, gure Itzuliaren lekuko izango gara. Izarren distira inoiz baino indartsuagoa izango da. Van Vleuten, Asleigh Moolman-Pasio eta Santesteban gure etxean izango dira. World Tourra amets, bertan dugun altxorra zaindu, ureztatu eta sustatu beharra daukagu. Nork egingo du bestela?

Konarek brontzea Espainiako txapelketan

JUDO J.D.

Durango Judo Taldeko Deniba Konarek brontzezko domina kolokatu du gazteen mailako Espainiako txapelketan. Fi-



DENIBA KONARE

nalerdietan, lehenago beste torneo batean menderatua zuen aurkari batek kanporatu zuen. Ondoren, nagusitasunez gailendu zen brontzerako borrokaldiran. Ainhoa Alonso taldekideak lehenengoz parte hartu zuen txapelketan.

Munduko txapelketa bigarren tokian hasi du Alain Arrizabalagak

2011tik erretiratuta zegoen, lesio bategatik, eta ezusteko itzulera izan du



Alain Arrizabalaga, Frantziako lorpena ospatzen.

> URETAKO MOTORRA J. D.

Alain Arrizabalaga ate nagusitik itzuli da uretako motorren munduko txapelketara. 2009ko txapelketan lehia albo batera utzita zuen orain bost urte izan-

dako lesio bategatik. Baina uretako motorraren gainean akrobaziak egiteko abileziari bere horretan eusten diola erakutsi zuen joan zen asteburuan Frantziatik hasi zen munduko txapel-

ketan. Bigarren tokian amaitu zuen, aurreikuspenak apurtuta. "Entrenamendu saioetan ondo ikusi nuen neure burua, eta horrek konfiantza eman zidan. Seigarren edo bosgarren tokian geratu nintekeela uste nuen, baina ez nuen itxaroten bigarren amaitzea", adierazi du kirolari abadiñarrak.

Munduko txapelketa lau probek osatzen dute: Portugalgoa, Amerikako Estatu Batuetakoa eta Brasilgoa falta dira. Portugalgoa maiatzaren 19tik 21erako asteburuan izango da. Proba hori Europako txapelketako azkena ere izango da, eta Arrizabalaga bigarren doa.

R.P.S. 214/05

A. Urteola podología

Abinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es



GREMIOEN GIDA



ITURGINTZA

Mallabiena



M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Ubide

iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.

UNAI GARAY

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



GARBIKETA

AZKARGI GARBIKETAK

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



ZURGINTZA

leike

aroztegia &
diseinua &
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

ATERPE

AROTZAK

EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

“Nahiago dut futbola orain maila onean nagoela utzi, eta ez ezinean nabilenean”

Amorebietak mailari eutsita beste lasaitasun batez hartuko du erretiroa Mikel Muniozguren

> **FUTBOLA** J. Derteano

Amorebieta futbol taldeak Bigarren B Mailan mantentzea lortu du. Logroñes 1-0 menderatuta, denboraldi osoko sufrimenduak amaiera ona izan du jokalaria eta zaleentzat. Esaterako, taldean bost urte eman dituen Mikel Muniozguren jokalaria (1983, Deba) beste lasaitasun batez eskegiko ditu botak hurrengo asteburuan. 15 urteko ibilbidearen ostean, futbola utziko du.

Amorebietaren denboraldia bitan banatu daiteke. Panorama beltzagaz heldu zen azken hamar jardunaldietara. Azken txanpa, ordea, bikaina izan da: zortzi garaipen eta porrot bakarra. Jokamoldea egokitu izana da joera aldaketa horren arrazoietakoa bat. “Hasieran baloia jokatuz ateratzea zen helburua. Horrek bere arriskua du eta atletik gertu egindako akatsak garesti ordaindu ditugu. Otsail inguruan estila apur bat moldatu eta zuzenago edo errazago jokatzen hasi ginen, akats gutxiago egiten genituen, eta harrezkero gauzak hobeto joan dira”, gogoratu du Muniozguren.

Amorebietan aurtengoa baino urte hobeak bizi izan ditu



Futbol ibilbideko zazpi denboraldi Amorebietan eta Durangoko Kulturalean egin ditu Debako jokalaria.

Muniozguren. Bigarren A Mailarako play offa jokatu zuten, bere ibilbideko golik ikusgarriena sartu zuen, zaleek oraindino ondo gogoratuko dutena: atezainak luze jotako baloia beste area ertzean erortzeraz zihoan, eta Muniozgurenek botea egin orduko jo zuen baloia, atezainari buru gainetik pasatuz. Baloiak atletik aterako bidea egin zuen, lurrik ukitu gabe. Debako jokalaria 33 ur-

te ditu, eta futbola uzteko une aproposa dela uste du. “Familia, lana, futbola... dena pilotzen da. Denera eta ezertara ere ez, horrela zaude batzuetan. Gainera, nahiago dut futbola oraindik ondo nabilela utzi, eta ez ezinean nabilenean”.

Muniozgurenek aspaldiko lotura du Durangaldeagaz. Amorebietaren aurretik Durangoko Kulturalean ibili zen, denboraldi bitan. “Durangon urte bi

oso onak eman nituen hegalean jokatuta. Lehenengoan zazpi gol egin nituen. Bigarrean play offetara sailkatu ginen, eta nire ibilbidean golik gehien sartu dudana denboraldia izan zen, 14 golekin”, adierazi du jokalaria.

Aurten ere igoera fasera sailkatzeko zorian dago Durangoko taldea. Azken jardunaldiaren faltan laugarren dago. Bihar, 18:00etan, jokoan ezer ez duen Soduperen zelaietan jokatuko du.

Mendian parekorik ez duten korrikalariak

Silvia Trigueros eta Oihana Azkorbebeitia garaipenak pilotzen dabilta mendiko probetan

> **KORRIKA** J. D.

Oihana Azkorbebeitia eta Silvia Trigueros abadiñarrak goi mailan dabilta aurtan. Azkorbebeitiak mendiko lasterketen Euskal Herriko txapelketa irabazi zuen joan zen asteburuan, Kanpezun (Araba). Ander Gerrikaetxebarria eta Xabier Itur-

be zornotzarrak ere txapeldun izan ziren, promesetan eta juniorretan, hurrenez hurren.

Trigueros Basque Ultra Traillean nagusitu zen. Hogei ordu pasatxoan osatu zituen Gasteiz eta Iruñea arteko 130 kilometroak. Zirkuitu honetan lehiatu diren proba biak irabazi ditu.



Silvia Trigueros Ultra Traillean.



Azkorbebeitia Kanpezun.



Durango Kirol Taldea lehen mailara igo da

Hamar espezialitatetan onenak izanda igo dira

> **ATLETISMOA** J. D.

Atletismo klubaren arteko Euskadiko txapelketak jokatu zituzten joan zen asteburuan. Gizonetan Durango Kirol Taldeak bigarren mailatik lehenengo mailarako igoera lortu zuen. Kofi Darko, David Rua, Javier Fontaneda, Abdel El Arbaoui, Eneko Lanbarri, Roberto Garcia, Alex Cuesta, Damian Ares eta Alvaro Dominguez onenak

izan ziren, nor bere espezialitatean. Erreleboko lasterketa ere irabazi zuen DKTK.

Bidezabal Espainiakoan

Asteburu honetan junior mailako Espainiako Txapelketa jokatuko dute. Bidezabal da parte-hartzaileetako bat. Junior mailako zortzi talderik onenen artean dago Durangoko atletismo taldea.

AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA (gizonak)

Iurretako - Zaldia
· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

MAILA GORENA (gizonak)

Abadiño - Begoña
· Zapatuan, 16:00etan, Astolan.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA (gizonak)

Sasikoa Durango - Bilbo
· Domekan, 12:00etan, Landako kiroledegian.

MAILA GORENA (gizonak)

Abadiñoako Gaztetxe - Betiortzi
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroledegian.

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Elorriko Txiki - Pozgarri Adarre
· Zapatuan, 16:00etan, Elorriko kiroledegian.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Sasikoa Durango - Atxurre Bakio
· Barikuan, 20:30ean, Landako kiroledegian.

Elorriko Buskantza - Otxartabe

· Zapatuan, 18:00etan, Elorriko kiroledegian.

> SASKIBALOIA

ERREGIONALA MAILA (gizonak)

Julza Zaldia - Salleko
· Zapatuan, 17:00etan, Zaldibarko kiroledegian.

Zornotza - Erandio

· Zapatuan, 20:00etan, Ixerbekoa kiroledegian.

> PILOTA

BIHARKO IZARRAK TXAPELKETA

- **Salaberria - O.Etxebarria / Espinal - Zezeaga**

- **Garcia - Olaizola / Alberdi - Sarasa**

· Eguenean, 21:15ean, Mallabiko pilotalekuan.

PROFESIONALETAKO JAIALDIA ZALDIBARREN

- **Esteban - Erostarbe / Elordi - Irusta**

- **Altuna - Martija / Ezkurdia - Zabaleta**

Barikuan, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan.

BIZKAIKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA

- **Iurretako - Sestao**

Barikuan, 19:00etan, Iurretako pilotalekuan.

MASTER KAIOLA

- **Yuste - Biain // Uribe-Barturen // Gartzia - Artola // Irazustabarrena - Landaluze**

Barikuan, 18:00etan, Zornotzako pilotalekuan.

> ESKELA


Mari Carmen Gandarias Gorroño

Ondare Baserrigintza
Koop. Elk. txikiko bazkide eta langileak

2017ko maiatzaren 8a

> BOTIKAK

BARIKUA, 12 · 09:00-09:00	09:00-22:00
Etxebarria Montevideo etorb. 2 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00	22:00-09:00
Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza	ASTELEHENA, 15 · 09:00-09:00
Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza	Mugica Andra Maria 9 - Durango
22:00-09:00	Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza	09:00-22:00
ZAPATUA, 13 · 09:00-09:00	Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza
09:00-13:30	MARTITZENA, 16 · 09:00-09:00
Etxebarria Montevideo etorb. 2 - Durango	Irigoin Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Bazan Diaz Urribarri 5 - Durango	Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango	09:00-22:00
Navarro Artekalea 6 - Durango	Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza
De Diego Intxaurren 22. - Durango	Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	EGUAZTENA, 17 · 09:00-09:00
Eguren, Isabel Trañabarren 15 - Abadiño	Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango
Jaio-Olabarrieta Errekakale 6 - Elorrio	Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
Bartolome Gabiola 2 - Berriz	09:00-22:00
Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza	Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza	Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza
09:00-14:00	EGUENA, 18 · 09:00-09:00
Irigoin Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango
09:00-22:00	Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño	09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza	Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño
22:00-09:00	Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza	Sarasketa, Diego (Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza)
DOMEKA, 14 · 09:00-09:00	
Bazan Diaz Urribarri 5 - Durango	

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 14:00ak arteko epea



> Matienako neskarik jatorrenari zorionak guraso, lagun eta herriko guztien partez. Egun ona pasa, **Noa**.



> Zorionak, **Euri!** Konturatu orduko 11 urte... Mosu bat, poxpolin.



> **Libek** 13 urte egin dauz gaur, zorionak, ondo ondo pasau!



> Maiatzaren 17an 4 urte egingo ditu **Garazik**. Zorionak etxeko danen partez!



> Maiatzaren 16an gure panpoxa **Maia** 6 urte beteko ditu. Zorionak, poxpolin! Mosu, mosu eta mosu denon partez.



> Zorionak, **Ekain!** Aupa gure etxeko txapelduna! Ta mosu itzela etxeko guztien partez.



> Zorionak, guapa! Hartu mosu handi bat eta besarkada itzela zure familia osoaren partez. Muak.



> Maiatzaren 14an gure printzesak 11 urte beteko ditu. Zorionak eta oso ondo pasa.



> Zorionak, kuadrila! Miren, Amaiur, Jon eta Uxuen urtebetzeak ospatu ondoren, domekan **amama Justinan**ak ospatzen doguz! Moxu haundi bat danon partez.



Ermodo, 11 · DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Inge (674. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



MIREN RODRIGUEZ

Akrilamida

Akrilamida ez zaie nahita erans-ten elikagai; berez sortzen den azpiproductu bat da, elikagaiak sutan prestatzean. Akrilamida gehien ematen diguten elikagaien artean patatak eta ogia daude, temperatura handietan egiten direnean. Laborategian egin diren ikerketek erakutsi dute dieta bidez hartzen den akrilamidak minbizia eragiten duela animalien artean, baina gizakien artean ebidentzia ez da hain erabatekoa. Frogatua dago, dena den, elikagaietan agertzen denean minbizia eragiteko ahalmena duela, eta horrek esan nahi du erabaki zuzurra izango litzatekeela hartzen den kopurua murriztea, eta halaxe diote, gainera, Elikadura arloko Britainiar Agentziako adituek (FSA). Bestalde, Minbizia Iker-tereko Nazioarteko Agentziak (IARC) sailkapen hau eman dio akrilamidari: "Gizakiengan minbizi eragile izan daiteke", DNari kalte egin eta minbizia eragiteko ahalmena duela eta. Hori dela eta, elikadura arloko segurtasun arazo gisa hartzen dute gai hori FSA erakundeak eta Elikadura arloko Segurtasunaren Europako Agintaritzak (EFSA). Neurriak hartzea komeni dela dio FSAk, besteren artean ahalik eta akrilamida gutxiena barneratzea dietaren bidez, eta kanpaina bat jarri du abian, kontsumitzaileek kontzientzia har dezaten eta ahalik eta akrilamida gutxiena sor dezaten elikagaiak etxean prestatzean. Britainiar adituen iritziz, arau orokor bat izan beharko litzateke kolore hori argia lortzea almidoi ugariko elikagaiak frijitzean, labean egitean, txigortzean edo erretzean, adibidez patatak, tuberkuluak eta ogia.

anboto.org
MUGIKORREAN

Albisteak eta agenda,
bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena:
zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez,
erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratzuz.

**DESKARGATU
DOAN!**

**Anbotoren lagunak**

Zorionak!
Iker Berra Dorronsoro, Bidane Txopitea Bilbao, Gaizka Uribeetxebarria, Eli Areitio Garitaonandia eta Amatza Abasolo Txabarri Anbotoren lagunei tokatu zaizkie Kepa Junkera eta Sorginak kontzertura joateko sarrerak.



“Mendia afizio izan dut urte askoan, eta Kanadan ofizio bihurtu dut”

Mendi Harritsuetan (Kanada) elur-jausi izugarriaren lekuko izan ziren lau lagunetako bat da Bernas

> AKUILUA Aitziber Basauri
Kanadan hamar urte egin ostean, Durangon beste abentura bati ekin guran iritsi berri da Igor Bernas. Duela gutxi, Mendi Harritsuetan elur-jausi izugarri baten lekuko ere izan zen, lagun batzuekin batera. Icefall Lodgen (Kanada) jardun du lanean azken urteetan, mendiko eskia eta heli-eskia egiten.

Hamar urte egin dituzu Kanadan. Zerk eroan zintuen hara?
Abentura grin apur batek. Ikasketak bukatuta, bidaitzeko, eskalatzeko, eskiatzeko nuen gogo horrek. Lanerako, ingelesak ere garrantzi handia zuen. Beti izan dut Kanada buruan eta joateko momentua ikusi nuen.

Kanada zabalak ez du zerikusirik Euskal Herriagaz...

Ez, itzela da Kanada. Dena oso hurbil dugu hemen. Aldiz, Kanadan oso ohikoa da egun edo asteburu pasarako, autoan 12 ordu egitea, joan-etorrian. Oso handiak dira distantziak. Revelstoke —Kanada mendebaldea— herrian bizi izan naiz ni, eta handik hurrengo herrira joateko, adibidez, ordu eta erdi behar duzu. Mendi ingurua da.

Oso isolatuta dago?

Bai, baina bere xarma du. Mendian galduta sentitu zaitezke batzuetan, baina natura zuzaz duzu han. Oso jende gutxi bizi da han, oso-oso lasaia da.

Zerk eman dizu atentzioa?

Kanada naturagaz lotzen da asko. Inguru oso basatia da. Haritzak, oreinak... denetariko ani-

maliak daude, eta ingurua zapaldu gabea da. Badaude bide batzuk, baina, handik apur bat irtenda, guztiz galduta sentitu zaitezke, ez duzu inor ikusiko. Noranzko berean 500 edo 1.000 kilometroan ez dago ezer: mendia eta basoa. Kanadiarrak irekiak dira, oso jatorrak, arin konektatzen da haiekin, baina kultura estatubatuarra dute. Denbora behar da ondo ezagutzeko. Klimak ere eragina du, baina ez dute guk hemen dugu kaleko bizimodua. Hala ere, askotariko herrialdea da.

Kultura anitz batzen ditu?

Bai. Revelstoke 8.000 biztanleko herria da, baina oso isolatuta dago. Vancouver edo Calgaryaz alderatuta, hango bizimodua oso desberdina da. Ingelesa erabiltzen dute gehien, baina ekialdean frantsesez egiten dute. Quebec-en, adibidez. Kulturalki agian hurbilago zaigu hori. Urte bi eta erdi Montrealen bizi nintzen. Yukon eta Alaska ere bisitatu ditut.

Anbotoko mendizerragaz zerikusirik ez dute Mendi Harritsuek...

Desberdina da. Mendi Harritsuek ez dira hain altuak, ez dira 4.000 metrotik pasatzen. Baina inguru oso basatia da. Aitzindari haiek sentitu zutena sentitzeko aukera duzu; esploratzaile haien sentsazio berdinak sentitzeko. Ez dago beste ezer; norbera eta animaliak. Kanadatik heldu eta hurrengo egunetan Anboto eta Gorbeia igo nituen. Bakotzak bere xarma du.



Elur-jausi ikusgarriaren lekuko izan zara Mendi Harritsuetan. Nolakoa izan zen?

Bai. Ohituta nago elur-jausiak ikustera, baina lehenengoz ikusi dut hain handia eta hain hurbil. 100.000 metro kubiko elur jausi zen, hamar minutuan. Gu baino beherago zegoen ibaian presa naturala sortu zuen. Gu 1.000 metro ingurura geunden, eta sorpresaz hartu genuen. Zarata entzun, eta lagunei esan nien. Urrunera laino moduko bat ikusi genuen lehenengo. Elur-jausia 2.600 bat metrora sortu zen. Horrek eta hain handia izateak harritu gintuen. Bidetik aterako ez zen elur gogorra zela ikustean hurbildu ginen.

Grabatu zenuten lekukotza asko zabaldu da.

Bai, gainera hori aztertzekeo interesa sortu da. Aukera gutxi daude halako elur-jausi naturala horren hurbiletik grabatzeko. Erabilera didaktikoa emateko aukera ere sortu da. Eguraldi onagaz, udaberrian... ere gerta daitezkeela ohartzeko, kontzientziatzeko balio dezake.

Zer da zuretzat mendia?

Afizioa izan dut urte askoan eta Kanadan ofizio bihurtu dut. Urtebeterako joan nintzen, baina oso ondo integratu nintzen eta bila ibili barik etorri zen dena.

Geratzeko etorri zara.

Bai. Esperientzia oso ona izan da, asko bete nauen abentura itzela, baina ziklo bat bukatzeko unea zela ikusi nuen, beste abentura bat hasteko.

LAUHORTZA

AMAIA UGALDE BEGOÑA

Kazetaria



Tik bat

Soziologoek berbetan, tradizioak, gizarte normalizat hartutako kontuak, eta funtzionatzeko erakaldatzea ez da batere gauza erraza. Zerk alda lezake gizarte bat? Armagabete batek, agian? Independentziak? Gizarte mugimendu batek? Krisi ekonomikoak? Istripu nuklear batek?

Gurean, bada pertsonen harremanak guztiz aldatu dituen beste kontu bat; poltsikoan izango duzu, esku artean agian, poltsan.

Gaur goizean ere, itzartu, alarma kendu, eta mugikorren zer berri dagoen begiratu dut. Eskura izaten dut normalean. Mahai gainean daukat orain, ordenagailuan idazten ari naizen artean, eta geroxeago agian kotxean ere nahiko dut eskura izatea, semafororen baten whatsappak irakurtzeko edo.

Arratsaldean berandu banabil, ez naiz asko larrituko; koadrilako whatsappen “10 minutu” idatzi, eta listo. Gero, tabernako terrazan, bideo ikusgarri baten inguruan ibiliko gara, eta Wikipediara sartuko gara, aktore hura nongoa den edo herri hark zenbat biztanle dituen ikusteko.

Eta horrela, hamar minutuan sei bider begiratzen diot mugikorrari, erantzun baten zain (gero eta pazientzia gutxiago ote daukat?). Bakarrik nagoenean ere sarri begiratzen diot, ea zer berri dagoen. Aspaldi ikusi ez dudana lagun bati musu pilo bat bidaltzen dizkiot, eta kafea hartzeko geratu garenean, batere ez.

Agian egunen baten egin beharko dugu. Euskaraz 24 ordu bizitzeko ekimenak egin dituzte ba? Bada, guk ere antzeko zer edo zer; mugikor barik bizitzeko 24 ordu, asteburu bat, hainbat egun. Erretiro espiritualak, abintentzia sindromearekin egun batzuk pasatzea. Bai, egunen baten agian horixe beharko dugu. Egunen baten. Ala gaur?

Orain bai: bi tik.



maristak
Ikastetxea - Durango

946810058
www.maristak.com

etorkizun oso bat

www.maristak.com



Batzilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza

Aurrematrikulak
Batzilergoa
Maiatzak 2tik 12ra
Lanbide Heziketa
Ekainak 5tik 16ra

ATE IREKIAK
Zikloak eta Batxilergoa
Martiaz 17tik 19ra
19:00-20:00

Ezagutu nahi bagaituzu, deitu eta zita bat eskatu!





